



GARAPEN IRAUNKORRERAKO
LITERATURAREN GIDA
(7-18 HELBURUAK)
2022

GARAPEN IRAUNKORRERAKO LITERATURAREN GIDA

(7-18 helburuak)

2022

Egileak

Maite Aperribay-Bermejo
 Amaia Elizalde Estenaga
 M. Carmen Encinas Reguero
 Iratxe Esparza Martin
 Miren Ibarluzea Santisteban

Disenua eta maketazioa

Valentina Palomino
 Freepik

Gida hau UPV/EHUren Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko errektoreordetzako Campus Bizia Lab Programaren 2021-2022 deialdiaren proiektu baten baitan egin da.

ISBN: 978-84-09-44214-0



AURKIBIDEA

Sarrera	4
	6
	11
	16
	21
	24
	29
	34
	38
	42
	46
	49
	53

SARRERA

NORK, ZER, ZERGATIK ETA ZERTARAKO?

Gida hau 2021ean argitaratutako *Garapen Iraunkorrerako Literaturaren Gida (1-6 helburuak)* lanaren jarraipena da; hain zuzen ere, honako honetako aurrekoan bildu ez ziren Garapen Iraunkorrerako Helburuetarako (GIH) liburuak biltzea du helburu. Aurreko gidak bezala, honetako bi helburu nagusi ditu: batetik, Haur eta Gazte Literaturaren (HGL) erabilera sustatzea GIHak lantzeko eta, bestetik, bitartekariari tresnak eskaintzea literatura-lan egokiak hautatzeko eta baliatzeko. Horiek horrela, balore sozialak eta balore literarioak jarri dira erdigunean.

Nazio Batuen Erakundeak Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendan jasotako 17 helburuen artean 7. eta 17. helburuak eta horiei gehitutako hizkuntzaren eta kultura aniztasunari lotutako 18. helburua lantzeko egokiak izan daitezkeen literatura lan batzuk bildu eta iruzkindu dira. Xede nagusia da helburuz helburu proposatzen diren testuen bidez haur eta gazteei laguntzea ikuspegi kritikoa eraikitzen, baina literatura-testuen alderdi estetikoak eta literarioak ere begiratuta.

Ibilbide literario bat (zehaz mehatz hiru liburuk osatutakoa) proposatzen da GIH bakoitzerako. Txikienetatik gazteetaraino iritsi asmoz, ahalegina egin da hezkuntza-ziklo guztiak hartzeko eta askotariko generoak, egileak, irudigileak, argital-etxeak... kontuan hartzeko. Helburu bakoitzeko lanak bildu, hautatu eta iruzkintzearen ardura egile batek hartu du (bi helburutan izan ezik; horietan, taldean aritu gara). Beraz, idazketa molde desberdinak ere aurki daitezke gidan. Kasuan kasu, iruzkintzen diren lanen datuak eta ezaugarri nagusiak emateaz gainera, lanek dagokien GIHe-kin duten lotura azalarazi nahi izan da eta, gainera, literatura-lanak eskolan lantzeko proposamenak ere egin dira, hezitzaileek nahieran garatu, moldatu, egokitu... ditzaten, edo proposamen berrietarako inspirazio-iturri izan daitezten.

Ahalegina egin da euskarazko lanen eta tokiko kultura eragileen berri emateko; hain zuzen ere, 17 + 1 helburuari men eginik. Nazio Batuen Erakundeak Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendan 17 helburu jaso zituen arren, UPV/EHUKo Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrak 18.a ere proposatu zuen, hizkuntza eta kultura-aniztasuna aintzatetsita. UPV/EHUK ere bere egin du helburu hori, baita gida

honetako sinatzaileok ere. Helburu horri eusteari berebizikoa iritzi zaio, izan ere, NBEren Irakurketa Klubean, adibidez, GIHak lantzeko zenbait obra proposatzen dira, baina hiztun kopuru handiko hizkuntzetako obrak dira, eta gida honetan euskarazko lanei ere eman nahi izan diegu lekua (badira, edonola ere, gaztelaniazkoak ere).

Hamabi helburu, bost egile eta hamabi ibilbide literario, beraz, Garapen Iraunkorrerako Helburuetara bidean eta denon gozagarri. Hain zuzen ere, gozagarri zaie literatura irakurleei; baina, gozagarri izateaz gainera, jakina da Haur eta Gazte Literaturak helburu hezigarria ere baduela, eskola-garaian dagoen publikoari zuzentzen zaionez gero; eredu narratibo eta poetikoak eskaintzen ditu, talde-iruditerirako sarbidea da, eta kulturaren gizarteratzea sustatzen du. Bada, literaturak indar handiagoa lortzen du, gainera, txiki eta gazteengan sorrarazten duen plazerari erreparatuz gero. HGLk mundua nolakoa den erakusten die haur eta gazteei, bai eta nolako mundua nahi genukeen ere.

Hortaz, literatura tresna ezin hobea da mundu hobe batekin amets egiteko eta, amets horretatik abiatuta, gizarte-eraldaketa sustatzeko, eta haur eta gazteentzako literatura funtsezko erreminta da belaunaldi berriei txiki-txikitatik GIHak helarazteko. Hizkuntza literarioa testutik kanpo dagoen errealitatea ulertzeko baliagarria da eta literaturak, ikuspuntu estetiko eta ideologikotik, elkarrizketa sozialak betikitzen ditu, edo zalantzan jartzen. Horregatik, berebizikoa da haurren eta gazteen kontzientzia kritikoaren garapenean.

Gida honen bost egileak irakasle ari gara UPV/EHUn, Hezkuntza Fakultateetan, zehazki, Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Sailean, eta Letren Fakultatean, zehazki, Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Sailean. UPV/EHUKo Campus Bizia Lab (CBL) izeneko programan parte hartu dugu, hain zuzen ere V. edizioan (2021/2022). UPV/EHUKo Iraunkortasunaren eta Gizarte Konpromisoaren zuzendaritzari gure esker ona agertu nahi diegu "Haur eta Gazte Literatura eta GIH" proiektua laguntzeagatik. Proiektu horretan, GIHak eta literatura uztartuta, argitalpen egokien bila ibili gara, eta gida eskura jarri nahi izan diegu, gure ikasleei ez ezik, baita hezitzaile eta gurasoei ere, unibertsitatetik gizarterako jauzia eginda.

GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK

1. helburua. Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan.
2. helburua. Gosea amaitzea, elikagai segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea.
3. helburua. Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.
4. helburua. Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.
5. helburua. Genero berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea.
6. helburua. Uraren erabilgarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea.
7. helburua. Energia eskuragarria, fidagarria, jasangarria eta modernoak bermatzea guztiontzat.
8. helburua. Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu bete eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea.
9. helburua. Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarri bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea.
10. helburua. Herrialde bakoitzean eta herrialdeen artean desberdintasunak murriztea.
11. helburua. Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.
12. helburua. Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea.
13. helburua. Neurri urgenteak hartzea klima aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko.
14. helburua. Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu jasangarrian erabiltzea garapen jasangarriari begira.
15. helburua. Lehorreko bizitza babestea, lehengoratzeko eta modu jasangarriean erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarriean kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa inbertitzea eta biodibertsitatearen galera gelditzea.
16. helburua. Garapen jasangarriko gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrek eta inklusiboak sortzea maila guztietan.
17. helburua. Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarriko Munduko Ituna biziberritzea.
- 17+1. helburua. Hizkuntza gutxituak eta kultur aniztasuna. Euskararen eta euskal kulturaren garapena eta gaikuntza elaniztuna.

7. GIH

ENERGIA ESKURAGARRI ETA EZ KUTSATZAILEA



[Energia eskuragarria, fidagarria, jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea.](#)

**M. Carmen Encinas Reguero,
Iratxe Esparza Martín,
Miren Ibarluzea Santisteban**

FISI KA Y LAS ENERGÍAS RENOVABLES

Idazlea:
Blandine Pluchet

Ilustratzailea:
Virginie Rochetti

Itzultzailea:
Gemma Gallart Álvarez

Argitaletxea:
Oniro, 2009

ISBN:
978-84-9754-381-1

63 orrialde
10 urtetik aurrera



Fisi Ka y las energías renovables liburuaren egilea, Blandine Pluchet, fisikaria da eta gazteen artean zientzia zabaltzeko helburuarekin sortu du liburu honetako pertsonaia. Beste lan batzuetako pertsonaia nagusia ere bada Fisi Ka: *Fisi Ka y el enigma del espejo* (optikari buruzkoa), *Fisi Ka y la piedra misteriosa* (imanei buruzkoa) edo *Fisi Ka*

y el fantasma electrón (elektrizitate estatikoari buruzkoa).

Fisi Ka y las energías renovables liburuan, protagonistak, herriko gainerako biztanleekin batera, arazo handi bati aurre egin beharko dio: gas, petrolio eta ikatz erreserba energetikoak (erregai fosil berriztaezinak eta, gainera, kutsatzaileak) agortzen ari dira. Hori dela eta, herri osoa beste energia-iturri batzuk bilatzen ariko da.

Hasierako arazo horretatik abiatuta, Fisi Kak beste energia mota batzuk erabiltzen dituzten hainbat pertsonaia bisitatuko ditu. Bisita horiek Sorgin Handiaren bisitarekin tartekatuko dira. Sorginak azalpen zientifiko egokiak emango dizkio Fisi. Azalpenak errazak eta irisgarriak dira, obraren hartzaila gazteentzat egokiak. Gainera, energia-ekoizpeneko prozesuak azaltzen dituzten irudiekin ilustratuta daude azalpen horiek. Horrela, modu sinplean azaltzen da liburuan landare-hondakinen deskonposiziotik (biomasa), haizetik (energia eolikoa), uretatik (energia hidraulikoa edo hidrikoa), luraren berotik (geotermia) eta eguzkiaren berotik (eguzki-energia) energia lortzeko aukera. Energia berriztagarri horiek guztiak, energia fosilak ez bezala, ez dira kutsagarriak eta ez dira agortzen. Fisirentzat pozgarria da bere herriak energia-iturri alternatiboak aurkitu izana; edonola ere, lan honek energia aurreztearen eta birziklatzearen garrantzia ere nabarmentzen du.

Fisi Ka y las energías renovables liburuak, bukaera aldean, berotegi-efektuari buruzko esperimendu erraz bat egiteko proposamena jasotzen du. Es-

perimendu hori ikasgelan egin daiteke ikasleekin, azken horiek obran aurrez azaldutakoa egiazta dezaten. Gainera, energia aurrezteko hainbat ekoekintza ere jasotzen ditu liburuak.

Obra lantzeko, liburuan aipatutako bost energia berriztagarri motak lantzea gomendatzen da. Horretarako, ikasgelan bost ikasle talde sortuko dira, eta talde bakoitzak energia mota baten ardura izango du. Talde bakoitzak egokitutako energia motari buruzko hormairudi bat egingo du, energia hori nondik datorren eta nola ekoizten den azaltzeko (Fisi Karen azalpenak erabiliko dituzte ikasleek, eta informazio gehigarria ere bilatu ahal izango dute). Hormairudia amaitutakoan, energia horri buruz zer ikasi duten azaldu beharko die gainerako ikasleei. Ondoren, talde guztiek berotegi-efektuari buruz Fisi Kak proposatutako esperimendua egingo dute eta, azkenik, Fisik proposatutako ekoekintzak aurkeztuko dituzte. Halaber, azalduko dute horietako zeintzuk jarriko dituzten praktikan aurrerantzean. Hortik aurrerako lana izango da kontzientzia hartzea eta ulertzea ekoekintza horiek guztiak gure ohiturak aldatzera eta denboran mantentzera garamatzatenean bakarrik dutela balioa.



EL NIÑO QUE DOMÓ EL VIENTO


Idazlea:
William Kamkwamba
Bryan Mealer

Ilustratzailea:
Anna Hymas

Argitaletxea:
Penguin Random House, 2018

ISBN:
978-84-17424-12-1

315 orrialde
12 urtetik aurrera



Garapen Iraunkorrerako Helburuen arteko 7.ak dio gizaki guztiok daukagula energia eskuratzeko eskubidea. Oraindik ere, ordea, asko eta asko dira munduan energiaren ezak eragindako desorekak pairatu eta oinarrizko beharrak ase ezin dituztenak. *El niño que domó el viento* liburuak auzia erdigunean jartzeaz gain, energia-iturri berriztagarriak eta haiekin lotura zuzena daukaten gaiak ere agerian uzten ditu: osasuna, hezkuntza, bizi-kalitatea, hornidura edo energiaren dimentsio politikoa.

Eleberriaren lehenengo argitalpena 2009an plazaratzen da.

2019an, liburuan oinarrituta, Chiwetel Ejiorrek filma zuzentzen du. Aipagarria da urte beretan Elisabeth Zunonek liburua egokituta albuma ilustratzen duela. Gida honetara ekarri dugun eleberri iradokitzaile hau 12 urteko geletan nahitaez irakurri beharko litzatekeelakoan gaude. Benetako istorio batean oinarrituta dago, eta William Kamkwambak eta Bryan Mealerrek idatzitakoa da lana. Zehazki lehenengoaren bizitza narrazten da. Liburua oso aproposa da gelan autobiografia literarioaren –eta horrekin batera, beraz, idazkera eta testuetako baliabide estilistikoak– ezaugarriak lantzeko. Liburuan, William Kamkwambak pertsonaia nagusiaren bizitzaren irudikapenaren berri ematen du, lehenengo pertsona erabilia; hala, erabatekoa da irakurlearekiko sortzen den lotura. Eleberriaren hasieran protagonistak irakurleari zuzenean hitz egiten dio, oso erakargarria izanik nola kokatzen gaituen bere herrialdean, bertako bizimoduaren xehetasunak azaltzen baitira. William Masitala herrixkan bizi da, Wimbe hiritik gertu, Malawin, Afrikan. Landa-eremuan luraren ustiapenetik bizi dira, garia erreiten dute eta uzta urtean behin jasotzen da, ezinbestekoa dena bizirik jarraitzeko, haien dietaren funtsezko elikagaia arto-bihiak direlako. Herrixkara ez da elektrizitatea heltzen, ez daukate, beraz, ordenagailurik edo bideo-jokorik; jostailuak umeei sortzen dituzte zaraman edo kalean topatzen dutenarekin.

13 urte betetzen dituenean, William irrati zaharrak desmuntatzen hasten da barruan dauden ahotsak non ezkututzen diren jakin nahi duelako; horixe da, hain zuzen ere, zientziarekin

daukan lehenengo kontaktua. Jakinminak pizten dion hurrengo aurkikuntza bizikleten dinamoa da, haren bidez Williamen asmorik nagusia gauzatuko da: elektrizitatea ekoiztea. Lehen Hezkuntzako ikasleak energiaren garrantziaz jabetuko dira protagonistak horren inguruan ematen dituen azalpenei esker: Malawin elektrizitatea oso garestia da eta ez dago guztion eskura. Gainera, nahiz eta ordaindu ahal izan, herrialdeko konpainia elektriko bakarrak ez du elektrizitate-hornidura ziurtatzen. Sarritan, baso-husteak eraginda, argi-mozketak gertatzen dira, gariaren eta tabakoaren plantazioek basoak desagerrarazten baitituzte eta, horrez gain, edozein gauzarako sua egitea ezinbestekoa denez familiek zuhaitzak moztu behar dituzte. Kate luze bat da, lurra babesten duten zuhaitzik gabe, uholdeek etxaldeen lurra suntsitzen dute ereiteko ezinbestekoak diren mineralak ere hondatuz. Hori dela eta, Williamen ametsa zientziak ikastea da, zientzialaria izan nahi du bere herrialdeak pairatzen dituen zoritzar guztiei amaiera jartzeko eta biztanleen bizimodua hobetzeko.

Alabaina, 2000. urtean, Gobernuaren aldaketaren ondorioz, ongarrrien prezioak igotzen dira eta, haziei hezteko oso lagungarriak izan arren, familia gehienek ezin dute erosi. Urte berean uholdeak datoz eta ondorengo lehorreak uzta hondatzen du; gosetea heltzen da Malawira, eta testuinguru horretan jarraitzen du aurrera bizimoduak. Williamek eskola utzi behar du, bere etxean ez daukatelako dirurik tasak ordaintzeko. Berriz ere, umea eredugarria da, inoiz ez duelako ikasteko gogoia galtzen: ahal duen guztietan liburutegira joaten da zientzietako liburuak irakurtzera. Bere buruaren mugak gainditzen dituen horietako bat da William Kamkwamba, ekin eta ekin bere helburuak lortzen dituenekoa. Irakurtzen duen guztia xurgatzeko izugarriko gaitasuna dauka eta, jakingurak bultzatuta, sortzeko ahalmen bukaezina. Bere herrialdean ura ponpatzeko eta elektrizitatea lortzeko haize-errotak nola eraiki ikasi nahi du. Zabor-biltzaile ibiltzeagatik barre egiten diote, eskolara ez joateak sufrimendu handia eragiten dio, hala eta guztiz ere, Kamkwambak gogor jarraitzen du lanean, haize-errotak bere etxearen aurrean altxatzea lortu arte. 2006an, 18 urte dituenean, herrialdeak bigarren gosetea jasaten du eta Williamen bizitza erabat aldatzen da munduak haize-errotaren berri duenean.

Eleberrian 7. GIHra hurbiltzeko ikuspegi eta irakaskuntzarako edukien adibide asko daude.

Ikasleei azal dakizkieke zeintzuk diren energia motak eta horien artean energia berriztagarriak zeintzuk diren bereiz dezakete. Autosufizientzia energetikoaz hitz egiteaz gain, gelan liburuan aipatzen diren energia motei buruz hausnar daiteke. Eleberriak, gainera, zientziak beste ikuspegi batetik jorratzeko aukera ematen du, energia berriztagarrien esparruko teknologiekiko esperimenduak aurrera eramateko abagunea luzatzen digulako. Liburuan hunkigarriak diren istorioak irakurtzen ditugu, badago azpimarratzeko moduko esaldi bat: "Munduak zaborra ikusten duen lekuan, Afrikak birziklatzen du; txatarra ikusten duen lekuan, Afrikak aukera berriak ikusten ditu". Beraz, ikasleek gogoeta egin dezaten hainbat galdera planteatu daitezke: nola eta zertarako erabiltzen dugu energia? Zeintzuk dira Williamek dituen oinarriko beharrak? Eta zeintzuk luxuzko bizimodura hurbiltzen gaituenak?



LA CUENTA ATRÁS

Idazlea:

Carlos Portela

Ilustratzailea:

Sergi San Julián

Argitaletxea:

Faktoria K de libros, 2008.

ISBN:

978-84-96957-15-2

95 orrialde

12 urtetik aurrera



Ezagun da jasangarritasunari lotutako zenbait gaitan denbora agortua zaigula eta jada eraginak leuntzeko erabakiak eta ekintzak baino ezin ditugula sustatu. Hala, aukeratu dugun album ilustratu honen izenburuak dion moduan, atzera-kontaktan sarturik gaude, adibidez, erregai fosiletatik eratorritako energia ez-berriztagarrien auzian, eta ez daukagu bide berriak sustatzea besterik.

Bada, Portela eta San Juliánen album honek arrazoibidean jartzen gaitu: petrolio-ontzi batek izandako istripuaren ondoren kostaldeko herri batean sortutako egoeraren berri ematen zaigu, eta hondamendi naturala ez ezik, hondamendi soziala ere ikusarazten zaigu. Aipagarri da albumak Divina Pastora fundazio valentziarrak emandako "Premio Divina Pastora de Novela Gráfica Social" saria jaso zuela. Caldelas izeneko herrian Prestigek eragindako kalteen istorioaz gainera, Manuel Rivasen hitzaurre bat eta Alvaro Pons kazetariak egileei egindako elkarrizketa bat ere badakartza liburuak. Azken hori komikiaren bozetoz lagunduta dago, eta aukera polita eskaintzen du komikiaren sortze-prozesuaz jabetzeko.

La cuenta atrás lan aproposa da **UNESCOren GIH**etarako hezkuntza-gidak 7. GIHaren atalean proposatzen dituen gaiok lantzeko: "energiaren ekoizpen, hornidura eta erabileraren eraginak" eta "petrolio-produkzioaren gailurra eta energia-segurtasuna". Hain zuzen ere, aipatutako gida horretan, 7. GIHko adierazleak lortzeko bidean, zenbait ikaskuntza-helburu zehazten dira, eta galegoz zein gaztelaniaz eskuratu daitezkeen album honen bidez, zehazki, ikaskuntza helburu kognitibo hauek lantzeko aukera dugu: "Ikasleak ezagutzen ditu energia-iturriak (berriztagarriak eta berriztaezinak), horien alde onak eta txarrak (ingurumen-inpaktuak barne), osasunarekin lotutako gaiak, energiaren erabilera, babesa eta segurtasuna, eta tokiko, herrialdeko eta munduko energia-egituraren duen parte-hartzea" eta, "Ikasleak badaki iraunkorrek ez diren bideetatik energia ekoizteak zer eragin negatibo dituen".

Istorioan ez da behin ere 2002an Galiziako kostaldetik gertu hondoratutako zorigaitzeko itsasontziaren izena (Prestige) aipatzen, ez eta ontzi hartatik isuritako petrolioaren eraginak kudeatu behar izan zituzten garaiko politikari zein arduradunenik ere. Isiltasuna, ikusten ez dena, gordeta lagatzen den hori da, hain zuzen ere, lan honen ardatza. Askotariko eraginak uzten ditu agerian, alabaina.

Istorioko kameralariak telebista-aurkezleari egiten dion oharrean laburbildu daiteke lanaren esentzia: "Baina, gogoratu ikusten ez duzu hori ez dela existitzen: horixe da trikimailua". Hain zuzen ere, hondamendia gertatu eta urtebetera hasten da istorioa, agintariak hondartzak lehengora etorritak daudela zabaltzeko eta turismoa erakartzeko

kanpainaren aurkezpena egiten dutenean. Kanpaina horretarako irudia nola sortu den azaltzen zaigu nobela grafikoan zehar, eta ikusten denaren eta ikusten ez denaren arteko jokoak da hori ere. Bide horretan, herri arrantzale bateko hainbat pertsonaiaren eta familiaren galerak, dirulaguntzen bidezko ustezko irabaziaz, herritarren bilakabide eta kontraesanak, hauteskunde aurreko jarrerak... ezagutuko ditugu, bai eta agintarien eta kazetarien jokabideen nondik norakoak ere, informazioaren manipulazioa agerian uzten dutenak. Hondamendia gertatu zenean sortutako herri-mugimendua atzean geratu da, ahaztuta, edo ezertarako balio izan ez zuela. Izan ere, "uste nuen gertatutakoak jendea aldatuko zuela... garrantzitsua izan zen, baina ikusten duzu..." dio herritar batek eta, ikusten denez, esperantzarik eza da nagusi, arrantza-herria hil egin da, kanpainak kanpaina.

*Flash back*a darabil egileak narrazioarako. Hilabete atzera egiten du jauzi istorioak kapitulu bakoitzean, eta hauek dira hautatutako unek: kanpainaren aurkezpen eguna, irudiaren hautaketa-prozesua, argazkia egin zeneko unea, *castinga* egin zenekoa, kostaldeari buruzko erreportaia bat alboratu zenekoa eta hondamendia gertatu ondorengo hauteskundeak izan zirenekoa. Une horietako egoerak adierazkortasunez eta xehetasunez betetako irudiz horniturik daude, estilo zinematografikoa gogorarazten dutenak.

Bigarren partearen behar zuten lan honek: 2014an, autoedizioa laguntzeko *crowdfunding* kanpaina bat abiarazi zuten egileek. Ez zuten, ordea, beren helburua lortu eta ez dugu hauteskunde kanpainaren berri eta marea beltza gertatu zenekoa kontatu behar zituen bigarren alerik. Hain zuzen ere, erronka hori proposa dakieke ikasleei, informazio-bilketa bat egin ondoren, istorioaren bigarren partearen idatz eta irudika dezatela. Atzerago ere jo liteke, petrolioaren ekoizpen eta garraio-prozesua bera kontatu dezaten testu-irudi bidez eta *flash back*aren teknika erabilita.

Lan honen irakurketa girotzeko eta gaia zabaltzeko, halaber, petrolioarekin lotutako prentsako berriak bilatu eta aztertzeko proiektua diseinatu daiteke, batez ere honako honetan jarriz fokua: zer kontatzen da, eta zer ez da kontatzen?

Azkenik, liburuaren lanketari bukaera emateko, Rivasek albumari sarrera egiteko dakarren

Palmen olerkiak (1964) ikasleei iradokitzen dienari buruzko eztabaida egin liteke gelan. Honela dio olerkiak, gure itzulpenean: "Itsasoari begira nago. Hortxe dago, Hortxe dago itsasoa. Begiratu egiten dut. Itsasoa. Tira. Louvre bezalakoxea da".



8. GIH

LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA



Guztiantzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea.

Iratxe Esparza Martin

EL PAÍS DE JUAN

Idazlea:

María Teresa Andruetto

Ilustratzailea:

Gabriel Hernández

Argitaletxea:

Anaya, 2005

ISBN:

978-84-6672-644-3

80 orrialde

10-12 urtetik aurrera



UNESCOk argitaratutako *Garapen Iraunkorrerako Helburuetarako Hezkuntza*. Ikaskuntza-helburuak gidan ikaskuntza helburu kognitiboak aipatzen dira, hau da, helburuak lortzeko ezinbestekoak diren erronkak hobeto ulertu eta barneratzeko ezagutzak. Ikasleek munduko hainbat eskualde eta herrialdeetako langabezia tasak eta, aldi berean, langabeziak zer gizarte-taldeari eragiten dion gehienbat ezagutzeko beharra azpimarratzen da. Halaber,

ikaskuntza-helburu sozioekonomikoen artean, ikasleek etorkizuneko ekonomiaz izan beharko luketen hausnartzeko eta eztabaidatzeko gaitasuna nabarmentzen da. Bi horiek besterik ez ditugu hemen aipatu, nahiz eta *El país de Juan* narrazioan agerian dauden baliok, aldarrikapen eta gizarte-beharrek 8. GIHan biltzen diren gaitasun guztiekin bat egin. Izan ere, Andruettoaren liburuaren protagonistek dena galtzen dute, duintasuna eta maitatzeko ahalmena izan ezik. Ez dira galtzaile, ordea, bizirik dira amesten jarraitzen dutelako.

Istoria Argentina kokatzen da, Juanen aitita-amonak iparraldean bizi dira, behiak eta txerriak dituzte eta haiengandik ateratzen duten diruari esker bizimodu xumea daramate; zoriontsuak dira daukatenarekin. Baina, lehorte, gobernu eta abereen lapurren erruz dena galtzen dute eta besteen abereak zaintzen hasten dira, Juanen gurasoak bezala. Hala ere, ugazabek ere dena galtzen dute eta lanik gabe egonda Juanen gurasoek hirira bizitzera joatea erabakitzen dute. Hirian Villa Cartón izeneko zonaldean altzairuzko xaflazko eta adreiluzko txabola eraikitzen dute, iparraldetik datozen beste askok egiten duten bezala. Hortik aurrera, familiaren ogibidea gauez kartoiak bilatu, sailkatu eta saltzea izango da. Liburuaren beste protagonista nagusia Anarina da: bere aitita-amonak artilea ehuntzen dute, baina haizete, gobernu eta artilearen lapurren erruz egun batetik bestera irabazi guztiak galtzen dituzte. Orduan, lantegietan lanean hasten dira, Anarinaren gurasoak bezala. Baina lantegien lapur, haizete eta gobernu aldaketaren erruz

ugazabak ere pobretzen dira eta Anarinaren gurasoek lanik gabe biziraun behar dute. Aita hiltzean, gainera, Anarinak eta amak etorkizun oparo baten bila hirira joatea erabakitzen dute. Lehenengo senide batzuekin bizi dira, gero zubi baten azpian eta, azkenik, Villa Cartónera hiltzen dira, hiriko auzoetan etxeak galtzen dituztenek edo lana galtzen dutenek ere han bukatzen dutelako. Anarinak eta bere amak kartoiak bilatu, sailkatu eta saltzen dituzte, eta egun batean Juanek eta Anarinak elkar ezagutzen dute. Maitasunaz hitz egiten digu istorioak, Juan eta Anarina maitemintzen direlako eta elkarrekin Villa Cartónen dauden desberdintasun sozialen kontra borrokatzen dute beste mundu bat posible dela imajinatuz. Ziur aski, horregatik erabakitzen dute iparraldera itzultzea, sustraietara itzultzeak bizitza berri bat hasteko aukera eskaintzen dielako. Horrela istorioa borobiltzen da eta Juanek eta Anarinak, azkenik, beraien lekua topatzen dute.

Itxaropenaren zirrara esaldi bakoitzean dago eta oso ideia sakonak eta mamitsuak atara daitezke irakurketa honetatik. Lana ez izateak eta pobrezia dakartzaten ondorio latzak nabarmentzen badira ere, protagonisten eta testuaren artean paralelismo ederra egin daiteke, lehenengoak mugan daudelako haien bizitzan eta bigarrenak bi genero literarioen ezaugarriak erakusten dituelako. Poetikotasun maila hartzen duen prosa zaindua esanguratsua da, eta testuaren lirismoa eta estetika hizkuntza literarioa lantzeko aberasgarriak. Simetriek ere izugarritzko garrantzia daukate: Juan eta Anarina bi munduren artean bizi dira; batetik, landa

-eremua eta, bestetik, hiriko bizimodua alderatzen dira irudiz betetako esaldietan. Errepikapen ugari daude eta horiek erabilgarriak dira zabaldu nahi den mezua finkatzeko, gelan irakurtzerakoan ikasleak konturatuko dira desberdintasunak desberdintasun umeen jarrerak, nahiak eta beharrak berdinak direla munduan zehar. Liburuan dauden pertsonaien ikuspegi ezberdinak eta sentimenduak dena dakien narratzaile baten ahotsetik ezagutzen ditugu eta hori lagungarria da irakurlea istoriotik kanpo koka dadin eta, aldi berean, gordintasunaren zama arintzeko. Bestalde, irudiek liburuaren literariotasuna indartzen dute, zuri beltzezkoak dira, Juan eta Anarinaren bizitzan kolorerik ez dagoelako; horrez gain, joko asimetrikoak ere proposatzen dituzte, oreka perfektua mantenduz testuarekin.

Liburuan, landa-eremutik hirira mugitzen diren migratzaileen bizipenak islatzen dira. Bidaian protagonisten identitatea lausotuz doa, aurreko bizimodua atzera utzi behar baitute. Horrek beraien jatorrizko identitatearekin nolabaiteko haustura dakar. Hortaz, Juanek eta Anarinak barne-bidaia ere egiten dute: maitasuna, adiskidetasuna, jaioterria, heriotza... Hori guztiori deserrotzearen eskutik dator. Irudi poetikoak errealitatearekin nahasten dira irakurlea hunkitzearaino; alabaina, testuak erakusten digu bizitza zirkularra dela eta protagonistek aurrera begiratzen dutela, edozein erronka gaindituz; itzultzea erabakitzen dutenean, zikloa itxi egiten da.

MEDELLINGO LOKATZA

Idazlea:

Alfredo Gómez Cerdá

Itzultzailea:

Aitor Arana

Marraskilaria:

Xan López Domínguez

Argitaletxea:

Ibaizabal, 2010

ISBN:

978-84-8394-364-9

146 orrialde

10-12 urtetik aurrera



10 urtetik gorako ume eta gazteekin irakurtzeko oso liburu aproposa da *Medellingo lokatza*. Eleberriak Espainiako Sari Nazionala irabazi zuen 2009an eta gurean urte bat beranduago ikusi zuen argia Aitor Aranaren itzulpen zoragarriari esker. Eleberriak bi laguneren istorioa kontatzen du, Medellingo

Andrés eta Camilorena. Tramak aurrera egin ahal, bien nortasun hauskorra agerian geratzen da, erakutsiz zein gogorra den Medellingo kaleetako bizimodua. Pasadizo gazi-gozaok umorez zipriztinduta egoteak zama kentzen die Andrésen eta Camiloren bizi-egoera latzei. Protagonistak Medellingo hiriaren magalean bizi dira, goitik ikusten dute metropolia eta diru apur batekin zer erosiko luketen amesten dute. Bitartean, bizitza haien aurrean pasatzen da. Izan ere, badirudi auzoan denbora gelditu egin dela behean dagoen hiri eroaren erritmoarekin alderatuz gero. Camilo eta Andres lagun minak dira, oso ezberdinak, oraindik biak umetasunaren inozentzia murgiltzen badira ere.

Nagusitan, batak auzotik ihes egiteko itxaropena dauka; besteak, aldiz, babesten duen hiria ez du inoiz atzera utzi nahi. Batak lan duin bat izan nahiko luke, aldatzeko aukera emango liokeen diru apur bat lortu; besteak, ordea, lapurra izan nahi du, egoera prekarioa aldatzea ezinezkoa dela pentsatzen duelako. Bata arazo eta maltzurkerietatik aldentzen saiatzen da, baina besteak uste du lapurretetan aritzea dela aukera bakarra. Dagoeneko ez doaz eskolara, etxera dirua eraman behar dutelako; pobrezia ate joka daukate, ez baita erraza lan duina topatzea miseriari ateratzeko. Hori izan liteke, hain zuzen ere, liburuak zabaltzen duen pentsamendua, gelan lantzeko baliagarria: langabeziak eragiten dituen ondorio sozialak eta horiek dakartzaten arazoak.

Alabaina, istorioak beste norabide bat hartzen du Mar auzoko liburuzaina agertzen denean, haurren ziurgabetasunaren aurrean euskarri sendoa eskaintzen dielako: literatura. Bi mutilak auzoko liburutegira doazen lehenengo aldia da eta liburuak dastatzeko eta irakurtzeko grina pizten zaie, beste mundu posibleetan bidaiatzeko aukera ikusten dutelako. Mar pertsonaiaren eskutik, irakurlea ohartuko da bakoitzaren ekintzek besteen bizitza baldintza dezaketela, eta hori da liburuaren beste irakurketetako bat: inguruari behatu behar zaio eta ondoan daukaguna zaindu. [Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzako Ikaskuntza-helburuek](#) iraunkortasunaren arloko herritarrei buruz hitz egiten dute, eta baieztatu herritar horiek hainbat oinarrizko gaitasun behar dituztela egungo munduan era eraikitzaile eta arduratsuan parte hartzeko. Horiek horrela, Mar liburuzaina gaitasun normatiboaren erakusle izango da. Azken finean, gure ekintzen atzean dauden arau eta balioak ulertzea ezinbestekoa da

jarrerara proaktiboa izateko eta, era berean, onuragarria inguruan ditugunei buruz hausnartzeko.

Eleberri honen bitartez irakurleak eremu sozio-emozionala landuko du: zeintzuk dira langabeziaren eta lan duina ez izatearen desberdintasun-egoerak? Zer da hazkunde ekonomikoa? Lotuta dago gizartearen garapenarekin? Hitz egin dezagun, beraz, desazkundeaz eta justizia sozialaz, argi dagoelako herrialdeen artean hazkunde ekonomikoa desorekatuta dagoela. Irakurketaz gozatzea eta gogoeta sustatzea posiblea da liburuaren bidez: lanak parekotasuna bermatzen badu, protagonistek oso zaila daukate klase sozioekonomiko batetik bestera pasatzeko. Familian lan eta soldata duinak izanez gero, Andres eta Camilo berdin biziko lirateke? Gelan mugikortasun sozialaren kontzeptua lan daiteke eta, batez ere, norberaren kontsumoak munduko ekonomiko beste lan baldintzetan duen eraginaz jabetu. Argi daukagu diru-sarrerara txikiak pobrezia, bazterkeria eta ezinegona eragiten dituztela?

Itxaropen zapuztuak eta desilusia, sentimenduen berpiztea, indarkeria, leialtasuna eta maitasuna azpimarratzen dira *Medellingo lokatzean*.



BETI IPARRALDERANTZ

Idazlea:

Jon Arretxe

Argitaletxea:

Erein, Auskalo, 2014

ISBN:

978-84-9746-939-5

160 orrialde

10-12 urtetik aurrera



Drissa zorientsu bizi da bere guraso eta anaia-arrebekin Kayesen, Malin. Egun batean, baina, aitak lanpostua galtzen du eta familiaren egoera erabat aldatzen da etxean diru-sarrerarik gabe geratzen direlako. Ordura arte zeramaten bizimodua irauli egiten da eta, ondorioz, zeukaten erosotasun gutxiari uko egin behar diote. Ezbeharrari aurre egiteko, Drissa hozkailuan egindako *flash* izoztuak saltzen hasten da herrian. Alabaina, diru-sarrera ez da nahikoa familia osoa mantentzeko, eta egoera larriak aita Afrikatik kanpo, Europara, alde egitera behartzen du. Goiz batean, aita etxe-

tik joan dela ikusten duenean, Drissaren bihotza puskatu egiten da, eta etxeko erantzukizuna hartu beharrean dago: eskola uzten du ondoko herrietako merkatuetan ere *flash*ak saltzeko. Ez da nahikoa, ordea; horregatik, ama oso txarto ordainduta dauden lanetan hasten da: artatxiki eta kotoi soroe-tan, kakahueteak zuritzen edota etxeak garbitzen. Bitartean, etxean jasotzen dituzten aitaren berriak gero eta urriagoak dira, badakite Malitik Aljeriara igaro dela, hortik Marokora eta, ondoren, itsasoa zeharkatuta, Europara. Idazteari uzten dionean Drissak, aitak bidalitako argazki bat poltsikoan, haren urratsak jarraitzea erabakitzen du. Aita non dagoen adierazten duten bi pista bakarrak agertzen dira argazkian: "BI" letrak dituen itsasontzi urdin bat eta atzealdean dagoen sirena baten estatua.

Oso liburu mamitsua da Jon Arretxek idatzitakoa, argia eta zuzena, baina aukera ematen duena lerroen artean iradokitzen denarekin hartzailak bere irakurketa propioa egin dezan. 10-12 urteko haur eta gazteekin lantzeko oso egokia da, protagonista nagusia, Drissa, munduan pairatzen diren zoritarren erakusle baita, baina tonu fatalistan erori gabe; izan ere, betiere ume baten begiradatik, itxaropentsu aurrera egin eta konponbideak bilatzen ditu. Liburuak irakurlearekiko enpatia lortzen du. Narratzailearen lehenengo pertsonaren erabilera erabakigarria da Drassik bizi dituen egoeretara irakurlea hurbil dadin, sarritan urduri edo deseroso sentitu eta ongizate-zonatik ateratzeraino.

Bat baino gehiago dira eleberrian landu daitezkeen Garapen

Iraunkorrerako Helburuak, gai ugari ukitzen baititu. Pobrezia desagerraraztearekin zerikusia du narrazioak, gosearen bidegabekeria erdigunean dago, kalitatezko hezkuntzaren aldarrria ere ikusgai geratzen da, generoaren desberdintasunak argi eta garbi azpimarratzen dira, herrialdeen arteko desberdintasunak murrizteko beharra adierazten da, eta, azkenik, 8. helburuarekin lotura zuzena daukan lan duina izateko eskubidearena. Izan ere, lana ez izatea mugimendu migratzaileen arrazoietakoa bat da; hori dela eta, lehen hezkuntzako hezitzaileentzako oso interesgarria izan liteke [Garapen Iraunkorrerako Helburu bakoitzaren eta migrazioaren arteko erlazioak](#) aztertzea. Arretxek ederki islatzen du lanaren ezak nola areagotzen duen familiaren zaugarritasuna eta, ondorioz, nola behartzen dituen aita eta Drissa migratzera. 13 urteko umeak egiten duen bidaia inizatikoan, pertsonaiak ikusi eta pairatzen dituen arrisku eta zorigaitzen lekukoa da irakurlea, pertsonaiak oztopoak eta beldurrak etengabe gainditu arren.

Lan-migrazioaren gaia gelan jorratzea nahitaezkoa da aurreiritziak deuseztatu eta gazteek inguruko eta munduko errealitate gordinak ezagutu ditzaten. Egunero pertsona askok beraien burua arriskuan jarri behar dute bizitza hobeago bat lortzeko helburuarekin, eta eleberri honen bidez, migrazioaren gaia lantzearekin batera migranteen eskubideetan fokua jar daiteke, herritarren arteko elkartasuna eta errespetua sustatuz eta arrazakeriaren kontrako jarrerak baztertuz. Abiapuntua hauxe izango litzateke: edonor izan daiteke migratzaile. Gaia garatzen hasteko, ikasleek *Migrants* film

labur hunkigarria ikus dezakete, non gaur egun migratzen dutenen ibilbidea eta helburuko herrialdeetan ematen zaien harrera gizagabea islatzen den bi hartz zuri protagonistaren eskutik. Ikasleek migrazioa oso fenomeno sozial zaharra dela eta pertsona guztiek gizarteratzeko eskubidea daukela ulertuz gero, posiblea izango da aniztasuna kudeatzen ikastea. Hori da, hain zuzen ere, Drissa aitari eta, azken finean, familia osoari, gertatzen zaiona Bermeora heltzen denean: beste aukera bat dauka duintasunez bizitzeko. Horietaz gain, gelan eskura egon daiteke [Amnesty International](#) erakundeak mugimenduan dauden pertsonen giza-eskubideen inguruko material didaktikoa.

Jakina denez, literaturaren bidez, edo oro har fikzioaren bidez, proposatutako laburmetraian ikusi ahal den bezala, errealitatearen gordintasuna irudikatzean tentsioa arintzen da pertsonaien eta irakurleen arteko distantzia jartzen delako. Horregatik, gazteek Arretxeren eleberriaren eta laburmetraia arteko loturak eginez gaia ikuspegi ezberdinetatik landu dezakete. Literaturak mingarriak diren gaiak tratatzeko aukera ematen du, fikzioa ezinbestekoa delako inguratzen gaituzten eta urrun geratzen zaizkigun errealitateak ulertzeko. Tristura, umorea, beldurra, adiskidetasuna, maitasuna, angustia, horrelako sentimenduen koktel zoragarria esperimentatuko du irakurleak *Beti iparralderantz* eleberrian.



9. GIH

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA



[Azpiegitura erresilienteak erakitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea.](#)

Amaia Elizalde Estenaga

ZER BEHAR DA?

Idazlea:
Gianni Rodari

Ilustratzailea:
Silvia Bonanni

Itzultzailea:
Fernando Rey

Argitaletxea:
Pamiela, 2010

ISBN:
978-84-9172-164-2

32 orrialde
3 urtetik aurrera



2019an Kalandraka bilduman argitaratutako Gianni Rodariren lan honetan poema baten laburtasuna eta intentsitatea biltzen dira. Ongi aukeratutako hitz gutxi batzuekin eta Silvia Bonanni collage estiloko ilustrazioekin estetikoki oso gozagarria den eta zer pentsatua ematen duen literatur proposamen aski interesgarria da *Zer behar da?* liburua. Rodariren beste zenbait lanetan ageri den planteamendu dialogikoa nabarmentzekoa da testuari lotuta: galdera-erantzun

egiturari jarraituz pentsamendu deduktiboa eta gogoaren ibilbide logikoa marrazten da. “Zer behar da mahai bat egiteko?” galderatik tiraka eta egurrezko mahaia eraikitzeko beharrezko materialaren jatorriaren aztarnei jarraituz, abiapuntuko elementu naturalera eramaten du poemak irakurlea: lore bat.

Literatur lan honen berezko balio estetikoaz gain, maila kognitibo eta filosofikoan planteatzen duen ariketa biziki interesgarria da. Batetik, egunerokotasuneko objektu bat nondik eta nola sortzen den, hori eraikitzeko zer behar den nor bere buruari galdetzeak eta horren inguruko erantzunak bilatzeak ikerketa-sena piztu eta ikerketa-mekanismoak aktibatzen ditu. Bestetik, modu ezin xume eta eraginkorragoan erakusten du lehen eta bigarren sektorearen arteko lotura, hau da, lehengaien ustiapenaren eta industriaren artekoa. Hala, objektu praktikoa horren atzean elementu naturalak daudela nabarmen azpimarratzen du testuak, gizarte industrialak inibilizatu ohi duen eremu horren garrantzia azaleratuz. Loreak balio bikoitza dauka: beharrezko den elementu naturala izateaz gain, edertasun delikatu eta iragankorren sinbolo ere bada, zaindu beharreko zerbait.

Haur literaturako liburu honek askotariko eta arlo ezberdinekin lotutako ariketak egiteko aukera ematen du, esate baterako, planteamendu kognitibo-filosofikoarekin lotutako jarduerak. Liburua irakurtzerako garaian komenigarria da galdera-erantzunen jolas dialogikoari denbora bat eskaintzea, haurrei hipotesiak eraikitzeko eta erantzun ezberdinak emateko tartea emate

tea, alegia. Bestalde, ipuinaren amaierara iristean ere interesgarria izango litzateke loreak zer behar duen aztertzea; hala, natur zientzien eremura gerturatzeko atea irekiko litzateke: ura, eguzkia, mineralak, uraren zikloa, kutsaduraren ondorioak eta abar. Lehengai naturalen bisibilizazioaren eta lehen-bigarren sektoreen arteko lotura azpimarratzen jarraitzeko, egunerokotasunean erabiltzen diren beste elementu batzuen jatorriaren aztarna jarraitzeko ariketa egin liteke, beti ere adinaren arabera. Gazteenen kasuan, egurrezko objektuetan ipini liteke arreta eta zaharragoekin, berriz, bestelako materialetara eta, beraz, lehengai naturala igaro: papera, goilara, ohiala eta abar. Ekoizpen-katean elementu naturalek daukaten garrantzia aztertzeko eta jasangarritasunarekin lotutako sensibilizazioa sustatzeko, gaur egungo eta iraganeko produkzio moduek ingurune naturalean izan duten eta daukaten inpaktuan azpimarra egitea izango litzateke hurrengo pausoa, industriaren eta naturaren arteko zubia eraikiz. Hau da, mahai bat egiteko loreak behar badira, nolakoa behar du izan gure industriak loreak ez ditzan kaltetu? Ilustrazioetan ageri den teknika jarraituz, collage hormairudi bat sortu liteke gaiaren inguruan: egurrezko objektu ezberdinak eta lore-landareak nahastuta, lorerik gabeko ingurune distopiko bat, mahaia ez den beste objektu baten elementu naturalen jatorria, eta abar.

Hizkuntzen eremura salto eginez, interesgarria izan liteke istorioa penintsulako beste hizkuntza gutxituak ezagutzeko ere erabiltzea, ipuina katalanez (*Què ens cal?*) eta galegoz (*Que fai falta?*) ere argitaratu baita Kalandrakan. Bestalde, italierako bertsio originala abesti bihurtu zuen Sergio Endrigok, *Youtube-n* “*Ci vuole un fiore*” izenburuarekin erraz aurki daitekeena. Katalanez ere bada *Teatre Aula konpainiak sortutako bertsio bat*. *Youtube* plataforman eskuragarri daude ipuinaren kontaketa musikatut gabeak galizieraz, katalanez eta gaztelaniaz.

ESKOLAKO ARBOLA

Idazlea:
Antonio Sandoval


Ilustratzailea:
Emilio Urberuaga

Itzultzailea:
Fernando Rey

Argitaletxea:
Pamiela, 2016

ISBN:
978-84-7681-954-8

40 orrialde
6 urtetik aurrera



Ipuin ilustratu honetan enpatia, ekintzailetasuna, talde-lana eta elkartasuna dira protagonista. Eskolako patioan apenas dago landarerik, arbola bat besterik. Ipuinak dioenez, “meharra zen, alanbrea bezain finak zituen adarrak; eta ez zuen hosto lehor bakar batzuk besterik”. Pellok gustoko du arbola hori eta, ez ikutzeko esaten dioten arren, laztandu eta hosto berri bat ateratzen zaio arbolarri. Hori ikusita, Pellok arbola zaintzeari ekiten dio, irakasleek errieta egiten dioten arren. Arbola hazi eta hazi egingo da abiadura bizian. Hori ikusita, gainerako ikaskideek ere arbola zaintzeari eta apaintzeari lotzen zaizkie, baita irakasleak ere, eta patioa zati garrantzitsu bihurtzen da. Ez hori


bakarrik, eskolako liburutegia zuhaitz gainean egindako etxolara eramaten dute; hala, zuhaitza eskolako azpiegituraren zati garrantzitsu bihurtzen da. Halako batean, Pello ohartzen da zuhaitzak hazi bat eman duela. Hazia zuhaitzik ez daukan beste eskola batera eramatea erabakitzen dute eskolan.

Eskola haurren lantokia izanik, nortasuna izateak eta ekintzailetasunak zer nolako garrantzia duten azaleratzen du Sandovalen kontakizunak, haurren eguneroko lan-testuinguruan. Norbere intuizioari jaramon egitearen aldeko apustua egiten da, beti helduen esanei kasu egin gabe, berrikuntzarako pizgarri gisa. Bestalde, intuizioa enpatiarri lotuta dago kasu honetan, Peiok arbola ihar bakarti baten alde egiten baitu apustu, ohartuta behar duena maitasuna eta zaintza direla. Apustu horren bitartez, eskolaren azpiegituran berrikuntzak gertatzen dira: zabu bat zintzilikatzen dute jolasteko, etxola bat eraiki eta liburutegira zuhaitzera eraman. Azkenik, berrikuntza hori zabaldu eta partekatu egiten du ikastetxeak zuhaitzik ez daukan beste batekin, hazi berria igorri bertan landa dezaten.

Eskolako arbola ipuinaren istorioak aitzakia ezin hobea eskaintzen du nor bere lan-espazioari begiratu eta zer hobekuntza berritzaile jasangarri egin litezkeen pentsatzeko. Era berean, komunitateko kide bakoitzak berrikuntza horren erakuntza-prozesuan zer-nola parte hartuko lukeen erabakitzeko aukera ere ematen du. Etxe, eskola eta toki gehienetan badira abandonatutako objektuak edota espazioak eta, hain zuzen ere, begirada horiei zuzentzeko gonbita luzatzen du ipuinak. Abandonatutako horiei arreta eskaini eta irudimenaren bidez denen artean probetxuzkoa izango den zerbait berria eraikitzeke ariketa bat da. Hala, horixe da proposatu daitekeen ariketa: "zein bazter edo objektu abandonatu daukagu gure eskolan?" galderari buruz bakarka pentsatu ostean, talde handian ideia-trukea egitea. Hortik abiatuta, aukera ezberdinak daude. Batetik, talde txikietan banatu eta hautatutako espazio/objektuaren transformaziorako zer berrikuntza egingo luketen proposatzea (idatziz, ahoz, marrazkiekin, e.a.), ondoren denon artean proiektu gustokoen aukeratzeko. Jarduera horretan dena diseinu mailan geratuko litzateke eta proiektu erabat imaginarioak edo errealagoak izateko aukera legoke, ematen den kontsignaren arabera. Aurrekoarekin lotutako beste aukera bat da proiektu erreal bat gauzatzea, hau da, berritzeko espazio/objektu bat ematea/aukeratzea eta proposatzen diren

berrikuntzetatik bat hautatu eta hori praktikara ekartzea. Hori etxean, ikastetxean edo herri/hirian ere egin liteke, proiektuak dimentsio eta, beraz, inplikazio ezberdinak izango lituzke kasuan kasu.

Ariketa mota askotarikoak proposa daitezke lantokia denontzako atseginagoa bilakatzeko ideiak bultzatuta norbanakoaren intuizio eta beharrak kanporatzeari lehentasuna emateko. Hala ere, ez da beti lan erraza izaten eta, beraz, hori lortzeko ariketa bat proposatzea ere baliagarria izan liteke, eskola testuinguruan, besteak beste, haur guztiek ez baitute bat-batekoan berdin parte hartzen. Hala "Ikasgelako zuhaitza" sortu daiteke, adartxo sorta bat izan litekeena, eskulan bat. Zuhaitz horren adar batzuetan lanean hobeto sentitzeko hautematen dituen beharrak zintzilikatu ahalko lituzke ikasle bakoitzak eta, besteetan, aldiz, gainerako kideengan nahiz inguruan antzematen dituen beharrak. Hori edozein unetan egin liteke, astean behin horretarako denbora eskainita eta tarteka marteka zuhaitzaren adarretan dauden elementuak bildu, irakurri eta talde handian komentatuta.



AUTOBUSAREN ZAIN


Idazlea:
Alaitz Olaizola

Ilustratzailea:
Manu Ortega

Argitaletxea:
Erein, 2005

ISBN:
9788497462853

56 orrialde
10 urtetik aurrera



Erein argitaletxearen Antzoki Txikia bildumako ale hau antzerki-testu bat da, eta istorioko agerleku bakarra autobus geltokia da. Bertan bilduko dira pixkanaka-pixkanaka autobusa itxarotera gerturatuko diren adin ezberdinetako askotariko pertsonaiak, elkarren artean kontu kontari jardun eta elkar ezagutzeko tarte izango dutenak. Alaitz Odriozolaren testua erraz irakurtzen da, idazkera argiak eta istorio entretenigarri nahiz umoretsuak arin eramaten du irakurlea. Era berean, antzerki-testu batek beharrezko dituen elementu oro azaltzen dira bertan, haurrentzako era irisgarrian, pertsonaien informazioa biltzen duen parates-

tuan horien ilustrazioak txertatuta, besteak beste.

Jorratzen den gaiak baino garrantzi handiagoa dauka literatur testu honetan pertsonaiak non biltzen diren eta nola harremantzen diren haien artean. Izan ere, batetik, antzerkiaren espazioak, alegia, autobus geltokiak, garraio publikoa erdigunean ipintzen du eta, bestetik, adin eta nortasun ezberdineko pertsonaien arteko komunikazioa eta elkar-ezagutza gertatzen da: hondartzatik bueltan den amona eta haren biloba, aurikularrak jantzita isolatu samar dabilen nerabea, egunkari-saltzailea, lapurra, itsua eta erosketak egite-tik datozen bi emakume. Autobus geltokia eta, beraz, garraio publikoa, komunitatea osatzen duen aniztasunaren topagune gisakoa da umorez blaitutako antzezlan honetan eta, beraz, antzezlan honek garraio publikoa konnotazio positiboz beteriko gertaleku gisa irudikatzen du, aniztasuna biltzen duen aukera inklusibo gisa.

Testu dramatikoaren izaera dialogatuak harreman zuzena dauka ahozkoatasunarekin, irakurketa ozenarekin eta dramatizazioarekin. Hala ere, gurean horretarako ohitura oso zabaldua ez dagoen arren, testu dramatikoaren bakarkako eta norbere baitarako irakurketa ere oso aberasgarria da. Are gehiago, testu dramatikoaren irakurketa lehendabizi denen artean eta ozen has liteke, irakurleak erakartzeko, eta ondoren haur bakoitzak bere kasa irakurtzen jarraitu ala taldeko irakurketa ozenarekin jarraitu. Norbere baitarako irakurketa sormenera bideratu daiteke, adibidez, ikasle bakoitzak egoera berriak sortu ditzan autobusa edo beste garraio publiko bat itxaroten ari diren pertsonaiekin. Sormena erabat librea izan daiteke edo pertsonaiak nahiz bestelako zenbait elementu aldeztu aurretik eman.

Hausnarketara ere bideratu daiteke irakurketa eta tertulia dialogiko bat prestatu, zenbait galderen bueltan. Adib.: Zuk erabiltzen duzu garraio publikoa? Zein? Nora joateko? Ezagutu duzu inoiz norbait garraio publikoa itxaroten ala bidaiatzen? Norekin identifikatzen zara gehiago, aurikularrak jantzita dituen gaztearekin, amonarekin ala amonaren bilobarekin? Zeintzuk uste duzu direla garraio publikoaren abantailak? Horrelako galderen bitartez eta elkarrizketa gidatuz, garraio modu jasangarri eta inklusiboen garrantzia azpimarratu daiteke, baita komunitatearen baitako komunikazioaren garrantzia ere.

Literatur testu honetatik abiatuta dramatizazio-rako pausoa eman daiteke, irakurketa dramatizatutik hasita. Kasu honetan, fokua ahotsen eta ahotsaren adierazpen-gaitasunean ipiniko litzateke. Hala, pertsonaia bakoitza ezaugarritzeko ahots egokia bilatzeari ekin dakioke, taldean nahiz bakarka, edo bien arteko nahasketa bat eginez. Erabaki beharreko ezaugarriak izango lirateke tinbrea, bolumena, erritmoa eta aparteko berezitasunen bat, halakorik gehitu nahi izatekotan. Jakina, estereotipoak bete daitezke edo horiek hautsi, bilobari oso ahots grabea ipiniz eta lapurrari kontrakoa. Beste aukera bat da dramatizazio-ariketa bururaino eramatea eta antzezlan egitea, irakurketa adierazkorraz gain gorpuzkeran eta gorputz-adierazpenean arreta ezarriz pertsonaiak eraikitzeke. Inspirazio iturri gisa, [Youtube-n aurki daitezke antzezlan honen taularatzeak, besteak beste, Orratx! antzerki-taldearena](#) (ikusi 06:20tik aurrera).

Ariketa pedagogiko oso interesgarria da jadanik idatzita dagoen testu bat taulagainera ekartzea ahozkotatuna, memoria eta talde-lana sustatzeko, baina sormena ere landu nahi izanez gero, testuaren adibidetik abiatuz zerbait berria ere sor liteke. Goian proposatutako tertulia dialogikoan ateratako ideiekin ikasleak esketxak taldeka sortzera bultzatu daitezke, ondoren zatiak hari baten bidez elkartu eta garraio publikoa nahiz komunitate inklusiboa gai izango dituen antzezlan sortzeko.



10. GIH

DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA



[Herrialde bakoitzean eta herrialdeen artean desberdintasunak murriztea.](#)

M. Carmen Encinas Reguero

SOY UN PUNTO

Idazlea:
Giancarlo Macri

Ilustratzailea:
Carolina Zanotti

Itzultzailea:
Elena Greggio

Argitaletxea:
San Pablo, 2016

ISBN:
9788428549066

48 orrialde
6 urtetik aurrera



Gutxieneko testu baten eta zuri-beltzeko ilustrazio sinpleen bidez, Giancarlo Macri eta Carolina Zanottik munduan dauden desberdintasunak islatzea eta irtenbide posibleak iradokitzea lortzen dute.

Ezkerreko orrialdearen eta eskuinekoaren arteko banaketa erabiltzen da txikienei modu bisual eta eskuragarrian gai konplexu baina eguneroko bat hurbiltzeko: munduen arteko

ezberdintasunak; zehazki, honako ezberdintasunez ari gara: "lehen mundua" eta "hirugarren mundua" deritzenen arteko desberdintasun sozialak, aberatsen eta pobreen artekoak edota teiatu, janari eta aisialdiaz gozaten dutenen eta hori guztia ez dutenen artekoak. Puntuak soilik erabiliz, gaia planteatzen da, immigrazioaren eta errefuxiatuen auzi konplexuari modu sotilean heltzen zaio eta lankidetzan eta elkartasunean oinarritutako irtenbidea proposatzen da.

Horrela, lana jarrera positibo batetik planteatzen da eta adiskidetasunaren, errespetuaren, tolerantziaren eta anaitasunaren balioak nabarmentzen dira.

Ipuin hau irakurri ondoren, ikasleei bi marrazki egiteko proposamena egingo zaie: horietako batean, eskuineko puntuaren munduan aurki daitezkeen gauzak marraztu beharko dituzte; bestean, ezkerreko puntuaren mundua nola irudikatzen duten islatu beharko dute. Hortik aurrera, bi munduen arteko desberdintasunei buruz hausnartzeko eskatuko zaie, bi munduetako zeini dagozkien pentsatzeko, beste munduan nola biziko liratekeen irudikatzeke eta, azkenik, egoera hori konpontzeko zer egin daitezkeen pentsatzeko.

HANIELLEREN TXALUPA

Idazlea:

Emilia L. Arias Domínguez

Ilustratzailea:

Cintia Martín

Itzultzailea:

Uxoia Iñurrieta

Argitaletxea:

A fin de cuentos, 2021

ISBN:

9788412091496

32 orrialde

6 urtetik aurrera



Haniellen txalupak Haniellek bere amarekin egoera zailetatik ihesi egindako bidaia kontatzen du. Atzean geratzen dira ezagunak eta maiteak; aurretik, bidaia arriskutsu bat txalupa hauskor batean, gauaren erdian, gosea, egarria, beldurra eta amets asko. Itsas bidaia arriskutsu horretan murgildurik daudela, aurkitu egingo dituzte azkenean eta etorkizun zoriontsu baterako aukera zabalduko zaie.

Haniellen txalupak migrazio-istorio bat kontatzen du, hainbat eta hainbat pertsonarena bezalakoa, dena utzi eta etorkizun hobe baten bila bidaia arriskutsu bati aurre egin behar diotenena bezalakoa. Baina, istorio ezagun horretatik haratago, Emilia Arias Domínguezen eta Cintia Martínen lana ilustrazioengatik nabarmentzen da; izan ere, testuak Hanielleren istorio gogorra kontatzen du, baina irudiek oso bidaia desberdina erakusten dute: gure mendebaldeko munduko edozein neskatilarena, tristurarik, minik eta arriskurik gabeko bidaia.

Liburuak lupa gorri bat dakar marrazkiak ikusteko eta Hanielle eta bere errealitate gogorra aurkitzeko. Horrela, irudiek agerian uzten dituzte geografikoki oso hurbil dauden baina ekonomikoki eta politikoki oso urrun dauden bi munduren arteko desberdintasun sakonak.

Haniellen txalupa, literatur lan bikaina izateaz gain, jarduera didaktikoa ere bada berez, lupa erabiltzera gonbidatzen baitu irakurlea, eta baita marrazki familiar horietan Hanielle eta bere mundua, ez hain ezaguna, bilatzera eta konparazioak egitera ere.

Irakurketarekin bat, ikasleek Hanielleren bidaiari buruzko marrazki bat egin ahal izango dute, bai eta liburuko irudietan agertzen den mendebaldeko neskatoaren bidaiari buruzko beste marrazki bat ere. Ikasleen marrazkiekin horma-irudiak prestatu daitezke eta ikasleei gonbita egin bi bidaien arteko desberdintasunei buruz eta desberdintasun horien arrazoiei buruz hausnartzeko.

EL MISMO MAR, LA MISMA SAL

Idazlea:

Ester Vallbona Domínguez

Ilustratzailea:

Núria Fortuny Herrero

Argitaletxea:

Bellaterra, 2012

ISBN:

9788472905917

18 orrialde

6 urtetik aurrera



Liburu-azaletik bertatik, *El mismo mar, la misma sal* liburuak paralelismoak eta simetriak erabiltzen ditu Klara eta Yassif haurren arteko antzekotasun eta ezberdintasun sakonak nabarmentzeko. Klara eta Yassif adin bereko neskatila eta mutikoa dira, beren ingurunearekiko jakin-min bera dutenak; hondartzara itsaso beraren kontrako aldeetan joaten dira eta haien amak laguntzen ditu. Baina Klararentzat dibertigarria den itsaso horrek Yassifentzat aitaren desagerpenaren misterioa gordetzen du. Klarak itsasoko ura zergatik den gazia galdetzen du, Yassifek, ordea, badaki itsasoa malkoz egina dagoela. Azken batean, bi munduren arteko etengabeko paralelismoen bidez, bi mundo horien arteko ezberdintasun sakonak hautematen dira eta, mundu batean poza gailentzen bada, bestean mina eta tristura nagusitzen dira.

Obra hau Klarak eta Yassifek egunen batean banatzen dituen itsasoaz elkarrekin gozatu ahal izateko itxaropenarekin amaitzen da. Mezu horrek gaur egun herrialde oparoenak eta ekonomikoki deprimituena bereizten dituzten desberdintasunak etorkizun hurbilean gainditzeko nahia ezkututzen du, funtsean, Clara eta Yassif bezala, guztiok desio berberak ditugulako.

Ipuinetik abiatuta, proposatzen da ikasleei hondartzako egunak nolakoak diren galdetzea: no-rekin doazen, zer egiten duten, nola pasatzen duten... Ondoren, Yassifek egoeraz hausnartzeko eskatuko zaie: zergatik dago Yassif triste hondartzan? Zergatik esaten du itsasoa malkoz beteta dagoela? Zer gertatu da Yassifek aitarekin? Pixkanaka-pixkanaka, galderen bidez, ikasleak bi errealitate horien kontzientzia hartzera eramaten saiatuko da irakaslea. Ondoren, bigarren fasean, hondartzetako irudiak eraman-go ditu irakasleak: alde batetik, turistak gozaten ari diren hondartzak eta, bestetik, etorkinen helmuga eta babesleku direnak (sarean aurki daitezke prentsan argitaratutako hamaika irudi, tartean 2015ean Turkiako kostaldean hilda aurkitutako haur siriarraren irudia, zeinak mundua hunkitu zuen. Hala ere, ez da beharrezkoa ikasleekin erabiltzea). Hortik aurrera, ikasleei eskatuko zaie irudiak alderatzeko eta gogoeta egiteko hain errealitate ezberdinen atzean dauden arrazoiei buruz, eta bi irudi-motetan agertzen diren pertsonen bizimoduaren nolakotasunei buruz.

11. GIH

HIRI ETA KOMUNITATE IRAUNKORRAK



[Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.](#)

Miren Ibarluzea Santisteban

HIRU TXERRITXOAK

Idazlea:
Ixiar Eizagirre Kerexeta

Argitaletxea:
bertsoikasgela.eus, d.g.

2 orrialde (6 bertso)
3 urtetik aurrera



Askotariko irakurketak egiteko aukera ematen du *Hiru txerri- txoak* ipuin klasikoak. Batzuek diote, esaterako, aurreikuspenaren eta zuhurtziaren aldeko aldarria dela, erantzukizunaren, lanaren jarraitasunaren, esfortzuaren, elkartasunaren eta kooperazioaren balioak ikusarazten dituen aldetik; beste batzuek, oster, eta batez ere Disneyren film bertsoari erreparatuta, merkatu librearen eta kapitalismoaren apologiatzat jotzen dute. Irakurketa beste berridazketa eta egokitzapen egin izan dira ipuin klasiko honetatik abiatuta, askotariko testu-genero zein mediatan ekoitziak. Bada, inondik ere, ipuin klasikoen artean ezagunetan ezagunenetarikoa izanik, aukera paregabea eskaintzen du irakurlearen aurre-jakin- tzak aktibatuta testuartekotasu- nean eta berrinterpretazioetan murgiltzeko eta hiru txerri- txoen etxeen eraikuntza- materialen amuari kosk eginda 11. GIHari

lotutako gaiak jorrazteko. Izan ere, UNESCOren GIHetarako hezkuntza-gidak 11. GIHa jorrazteko gaien artean zehazten ditu, besteak beste, “babes, segurtasun eta inklusibitate beharra”, “baliabide naturalen kudeaketa eta erabilera (berriztagarriak eta berriztaezinak)” eta “Eraikin sendo eta iraunkorrak eta espazioaren plangintza (eraikuntza-materialak, energia aurreztea, plangintza prozesuak)”.

Esan bezala, gai horiek lantzeko abiapuntu egokia da *Hiru txerri- txoak*, eta Ipuin klasikoaren bertsoietako bat dakargu gida honetara, zehazki, Ixiar Eizagirre Kerejeta bertsolariaren egokitzapena, zazpi puntuko berezian sortutako sei bertso- tako segida. Euskal ahozko literaturaren genero bat ekarri- ta, 11. GIHari ez ezik, 17+1 GIHari ere lotu nahi gatzai- kio. Bertsoak entzungai daude Bertsozale elkartearen *Bertso Iksagela* web atalean eta *testua deskargatu* egin daiteke PDF formatuan. Elkarriketa moduan emanda dagoenez gero, aukera ematen du hainbat ahotseta- ra kantatzeko, narratzailearen, amaren, txerri ertain, txiki eta nagusiaren eta otsoaren hitz errimatuak tartekatzen baitira.

UNESCOren GIHetarako hez- kuntza-gidan zehazten diren ikaskuntza-helburuei errepara- tuta, ikasleak gai izan behar du “bere kokagune den sistemaren iraunkortasuna eta beste bat- zuena ebaluatu eta konpara- zeko, askotariko beharrak aset- zeari begira: elikadura, energia, garraioa, ura, segurtasuna, hon- dakinen tratamendua, inklusioa eta irisgarritasuna, hezkuntza, berdeguneen integrazioa eta hondakin-arriskutsuak murriz- tea”. Bada, ildo horretan, hiru

txerri- txoenak erkaketa-lana egiteko lehen pau- soak emateko aukera bikaina eskaintzen du.

Batetik, hiru txerri- txoen etxeen materialei eta etxeek haizeteei dieten erresistentziari erreparatu dizaiokete ikasleek eta, bide hori egin ondotik, otso- aren pertsonaia “haizete gaizto”, “uholde maltzur”, “lurrikara gogor”, “sute txar”... zein bestelako hondamendiekin ordeztu eta ipuinaren bertso berriak asmatu. Horren adibide da UNICEFek bere webgunean euskaraz, gaztelaniaz, katalanez, ga- legoz, valentzieraz eta ingelesez emandako *Hiru txerrikumeak eta haize guztiz gaiztoa* bertsoia.

Bestetik, lekuan lekuko eraikuntza- materialei buruzko gogoeta egin daiteke, bai eta material horiek lortzeko bideari buruzko informazio- bilketa egin ere. Horrek ahalbidetzen digu GIHak lortze- ko beste ikaskuntza-helburu baterako bidea egi- tea; izan ere, arestian aipatutako gidan 11. GIHei dagozkien ikaskuntza-helburu sozioemozionalen artean zehazten denez, funtsezkoa da ikaslea gai izatea “bere bizimoduak ingurumenean eta gizar- tean dituen inpaktuen aurrean arduraz jokatzeko”. Eraikuntza- materialak hautatzean, ingurunean du- ten eraginari, materialak berrerabiltzeko zein bir- sortzeko moduari... ere begiratu behar zaio. Hala, informazioa biltzen duten posterrak egin daitezke honako galdera hauek ardatz hartuta: Nondik da- toz txerri- txoek erabilitako materialak?, Nolakoak dira?, Nondik lortzen ditugu guk eraikuntza ma- terialak?, Zein dira berrerabiltzeko modukoak?, Zein material dira berriz sortu ezinak?, Zer mate- rial berri darabiltzagu eraikuntzan?, Zer da ekoe- raikuntza? Informazio- bilketa eta posterrak egin ondotik, ipuinaren bertso berri bat sortu daiteke talde handian, materialak aldatuta, pertsonaiak al- datuta... bertsoan, elkarriketa gisa... nahieran.

ENE ITSUGIDARI, ENE KAPITAIN

Idazlea:
Gonzalo Moure

Ilustratzailea:
María Girón

Itzultzailea:
Manu López Gaseni

Argitaletxea:
Pamiela eta Kalandraka, 2020

ISBN:
978-84-9172-187-1

40 orrialde
6 urtetik aurrera



Hizkuntza gutxituen eremuan jarduten duten bi argitaletxeren elkarlanetik sortutako emaitza da *Ene Itsugidari, Ene kapitain* eta, alde horretatik, albumean ikus-irakur daitekeena ez ezik, albuma- ren ekoizpen-eredua bera ere garapen iraunko- rrerako helburuekin bat datorrela aitortu daiteke. Gaztelaniaz, galegoz eta katalanez ere eskura- garri dago 2021ean Cuatrogatos Fundazioaren 2021 saria eskuratu zuen lan hau. “Amets egi- teko liburuak” izeneko bildumako aleetako bat da eta, argitaletxeak emandako sinopsiari jarraituz, “Emozioa eta edertasuna, aita baten eta haren alabaren arteko maitasun sakona, edo urritasun bisualetik harago ikusteko gaitasuna, horiek guz- ”

tiak agertzen dira liburu honetan, zeinak protagonisten arteko elkarrekiko miresmen eta samurtasuna transmititzen baitu". [2019-2020 aldiko Irakur gidan](#) liburu gomendagarri gisa sailkatu zuten, eta gure gida honetan ere halaxe dakargu, gomendagarria baita lanaren beraren balio literario eta estetikutik haratago aukera ematen duelako 11. GIHari lotuta hirietako inklusio beharraz, espazioen plangintzaz eta komunitateen inklusio-dinamikez aritzeko, [UNESCOren GIHetarako hezkuntza-gidan](#) proposatu bezala.

Gonzalo Moure idazle valentziarrak lehenago ere jorratu izan ditu gai sozialak bere lanetan, adibidez, *Malto Panduro* izeneko lanean (kartzelan dagoen aitarekin irudi bidez komunikatzen den haur iji-toaren istorioa) edo *El beso de Sahara* lanean (Sahararren gatazka hizpide duena). Gidara dakargun hau Las Palmaseko kaleetan ikusitako aita-alaben irudi batetik abiatzen da, egileak berak lanaren [sorkuntza-prozesuari buruz](#) ari dela kontatzen duenez: alaba itsugidaria eskolan utzita, triste nabaritu zuen aitaren aurpegiera. Bada, aita-alaben eskolarako bidea da *Ene itsugidari*, *Ene kapitain* lanean aurkituko duguna, ikusten ez duten pertsonen mundua imajinaraziko diona irakurleari.

Eguneroko ekintza soil bat abentura bihurtzen da: aita itsua eta ikusmen urritua duen alaba eskutik doaz hiriko kaleetan eta, horren erakusgarri, gurutzatzen duten jendearen irudiak lausoagoak dira gainerakoen aldean. Bada, etxetik eskolara bidea argi-itzalen eta soinuaren oihan bihurtzen da, eta Maria Girónen irudi argi eta koloretsuek ere horixe erakusten digute: oihaneko faunaz eta floraz jantzitako hiri bat, landare eta lore sarriz, papagaitxo, tigrez, errinozerontez, krokodilo, hartzez... bete. Ikusizko metafora ederrez blai dator albuma: orriz orri ageri zaigu tximino urdin jostalari bat, aita bakarrik geratzen den sekuentzian soilik ageri ez dena, eta piztia-autoak: Panda, Kakalardoa, Jaguarra, Lehoia... Zebrabidea ere tarrapatanttan orroka dabilen ibai baten gaineko zubia da haurraren munduan eta, ageri denez, soinuek garrantzia handia dute eta testuari erritmo bizia ematen diote, toklok, toklak, toklok, toklak, aita itsuaren makilak bezala.

Lan honek bide ematen du gogoeta eta jarduerak proposatzeko [UNESCOren GIHetarako hezkuntza-gidan](#) zehazten diren zenbait ikaskuntza-helburura bideraturik; izan ere, ikasleak gai izan beharko luke bere kokagunearen iraunkortasuna

balioesteko, besteak beste inklusioa eta irisgarritasuna aintzatetsita, eta ulertu behar luke badirela zenbait oinarrizko printzipio ingurunea inklusioa egiteko. Irisgarritasun-beharrizanak dituen kolektiboekin elkarriketak antolatu daitezke, edota kolektibo horietako kideen testigantzak entzun sarean zein beren webguneak arakatu. Ondoren, beharrianei erreparatuta norbere herrian ibilbidea egin, irisgarritasunari begira egin litezkeen hobekuntzak proposatu ahal izateko. Azkenik, herriko mapa marraztu eta puntu zehatzak markatu litezke, ikusizko-metaforak baliatuta irisgarritasun-beharrizanak ikusarazita (eskailera bat mendi-gailur iristezina izan daiteke gurgildun aulkian dabilenarentzat, adibidez). Bide horretan ondutako jarduera da "En su piel" jarduera, [Fundación ciudadaniak emandako 11. fitxa didaktikoan](#) ageri dena. Hala, ikaslea trebatuko da tokiko komunitateekin harremanetan jartzen eta horiek laguntzen eta beste batzuekin batera komunitate inklusibo seguru, sendo eta iraunkorrako bat sortzen, arestian aipatutako gidan zehazten den ildotik.



PARKE BAKARTIA

Idazlea:

Antton Kazabon

Ilustratzailea:

Igor Ramos Peula

Argitaletxea:

Elkar, 2013

ISBN:

978-84-9027-071-4

32 orrialde

8 urtetik aurrera



2002az geroztik euskal idazleek eta euskal ilustratzaileek ondutako 50 liburu eman ditu Elkar argitaletxearen haur literaturako Batela bildumak, hortaz, tokiko eragileen ekoizpenaren erakusgarri da. Bada, Antton Kazabon euskal haur eta gazte literaturako idazle emankorrenetakoa dugu: euskarazko ikasmaterialgintzan eta ahozko literatura-ren transmisioan aritua da, bai eta luzaroan haurrekin zuzenean lanean ibilitakoa ere, ikastolako maisu. Batez ere HGLko narrazio, poesia eta bertso lanak idatzi ditu: 1988az geroztik 100 liburutik gora. Liburuetan mezu moralizatzaileak jarri gabe, gaiak planteatu, zirikatatu eta pentsaraztea, elkarriketa bide izatea bilatzen du Kazabonek; halaber, idazle gisa bere garaiko notario edo lekuko izan nahi luke. Bada, 11. GIHari lotutako gaurko gaiak

planteatzen ditu *Parke bakartia* lanak, zehazki, hirigintza inklusiboaren kudeaketaz eta parte-hartzeaz hausnartzeko. Hala, Igor Ramos diseinatzaile eta irudigileak liburuaren azalean bertan bildu ditu istorioaren oinarrizko ikurrak, liburua irakurri aurretik istorioaren aurre-hipotesiez galdetzeko abiapuntu izan daitezkeenak: parke bizi baten irudi diren txori eta tximeletak, istorioaren bukaera aldera irekiko den atea eta haurren erabakimena- ren ikurra den neskatila bat, giltzarrapoa eskuan.

Hiri-ekologia giza-kokaguneetara egokitzea da 11. GIHak jorratzen duen gaietako bat, eta irakurgai honetan horixe da ardatza: herri bateko parkearen sorrera-prozesua ez ezik, parke horren erabilera-dinamikek duen inpaktua: Martin Eztabilondo alkateari parke bat eskatu diote herritarrek eta, herritarren eskariak beteko zituela agindua baitzuen, eraiki ere eraiki du inguruko parajerik ikusgarriena. Harresi handi batek inguratua, ate handi batetik du sarbidea. Atea itxita dago, ordea. Parkea eraikitzea bera ez da nahikoa: ez da txoririk etorri parkera. Konponbide bila ari dira helduak: iturriak eraiki, argiztapena jarri... Baina, kale! Haurrek topatu diote konponbidea arazoari, oso modu naturalean: atea irekita topatu duten batean parkean sartu eta olgetan jarri dira. Orduan bai, orduan hurreratu dira animaliak.

Bada, istorio honen bidez ikasleak ohartarazi litezke [UNESCOren GIHetarako hezkuntza-gidan](#) proposatutakoarekin bat, tokian-tokian erabakiak hartzen dituztenek betetzen duten rolaz eta gobernantza parte-hartzaileaz eta nork bere inguruko plangintzan eta politiketan iraunkortasunari leku egiteak duen garrantziaz. Hortaz, liburu hau abiapuntu izan daiteke ikasleak trebatzeko beren komunitateari dagozkion erabaki-prozesuetan parte-hartzen eta eragiten.

Ipuinean zehar herritarrek hartutako erabakien inguruko eztabaidak egin ditzakete, *role playing* erabilia: batek herriko alkatearen rola jokatu du, beste batek zinegotziarena, beste batek herriko enpresari batena... Nahieran aukera daitezke pertsonaiak, ikasleek ideia-jaza bat egin ondotik. Eztabaidatu daiteke herrian parkea eraikitzeari buruz, argiztapen gehiago ipintzeari buruz, parkeari atea jartzeari buruz... Aldian-aldean rolak aldatzen joan daitezke ikasleak. Antzeko jarduera proposatzen da, [Garapen Iraunkorrerako helburuak ikasgelan unitate didaktikoaren 11. fitxan](#), baina, horra horretan, garraioa,

gune berdeak, behar bereziak dituzten pertsonen irisgarritasuna, plazak eta biltzeko tokiak, kultura-guneak, garbiketa eta hondakinen kudeaketa, kirol-guneak, osasun-zerbitzuak zerrendatzen dira informazio bilketa eta eztabaidarako, eta proposatzen da ikaskideak taldeka banatuta 2-3 esparru ematea talde bakoitzari herriko gune horietan hobekuntza-proposamenak proposatzeko eta udaleko web-orriko abisu, kexa eta iradokizunetarako postontzia erabiliz udalera helaraztea.

Parke bakartia lana hautatu zen 5. elkar ilustrazio eta ipuin lehiaketan, ipuinean oinarrituta ikasleek irudiak egin zituzten. Alderantziko norabidean ere saritzen dira lanak, alegia, ilustrazio bat eman eta ipuinak saritzen dira. Bada, *Parke bakartia* irakurri eta landu ondoren, proposatzen dugu ikasleak txangoan atera daitezela herriko garraioari, gune berdeei, plaza eta biltzeko tokiei, kultura-guneei, garbiketa eta hondakinen kudeaketa guneei... argazkiak ateratzera, eta horiei lotuta nork bere ipuina idatzi dezatela. Ipuin-lehiaketa ere antolatu liteke, beste ikasturte bateko ikasleak epaimahaikide jarrita.



12. GIH

EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUA



[Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak berrmatzea.](#)

Amaia Elizalde Estonaga

BI TXORI

Idazlea eta ilustratzailea:

Dipatxo

Argitaletxea:

Ttartalo, 2015

ISBN:

9788498435788

36 orrialde

2 urtetik aurrera



Dipatxo ezizenaz ezagun den Diego Francisco Sánchez Rodríguez egile kolonbiarraren literatur lan hau album mutu bat da, kontsumismoaz eta kontsumismoaren ondorioez modu grafiko, argi eta umoretsuan mintzo dena. Izenburuak dioen bezala, bi txori dira istorioaren protagonistak, zuhaitz baten adarretan bizi direnak, bakoitza zuhaitzaren alde batean. Egun batez, txorietako batek alde egin eta itzuleran objektu bat ekartzen du zuhaitzera eta besteak, hori ikusterakoan, gauza bera egiten du. Hala, elkarrekiko lehiak eta inbidia bultzatuta, zuhaitza denetariko objektuz beteko dute. Azkenean, pisu jasangaitzaren ondorioz, adar guztiak hautsi eta zuhaitza biluzik geratuko da. Txoriak ia ezer gabe geratzen dira, pausatzeke adarrik ere ez dutela. Liburuan txoriek zuhaitzarekin du-

ten harremana gizakiok naturarekin dugunaren metafora da; hala, hitzik gabe mintzo diren irudien bidez gaztetxoek ere setsibilizatzeko ariketa poetiko eta balio literario handiko lana da *Bi txori*.

Txikienekin album hau irakurtzean galde-erantzun bidezko irakurketa interaktiboa egitea komeni da, ulermena laguntzeko eta, bereziki, lehia, inbidia eta horiek bultzatutako kontsumismoarekin lotutako ideiak ulertzeko. Izan ere, azken horiek pisu handia dute liburuan. Honelako galderak egin litezke: zergatik begiratzen dio txori batek besteari? Zergatik ari dira geroz eta objektu gehiago ekartzen? Erabiliko dituzte objektu horiek? Zertarako nahi dituzte? Horrekin lotuta, istorioaren amaieratik tiraka metafora desegin eta liburuan kontatzen dena haurren bizimodura eta gizakion mundura ekarri daiteke honako galdera hauek eginez: zuek sentitu duzue noizbait objektu bat edukitzeko gogoia beste batek daukalako? Erabiltzen ez dituzuen zein objektu daukazue? Zer gertatzen da gero objektu horiekin? Gauzak hautsi baino lehen botatzen al ditugu, ia erabili gabe, soilik haiekin aspertu garelako? Hurrengo pauso gisa, gizakiok sortzen ditugun hondakinez betetako zabortegien irudiak erakutsi litezke, edo behar ez duten tokian amaitzen dutenean ere horrek dauzkan ondorioak bistaratu. Horretarako, literatur testua ikus-entzunezko ekoizpen batekin aberaste aldera, interesgarria izan liteke animaziozko laburmetraiak erabiltzea, [Reina Sofia Museoa](#) ekoiztako "Lemon", adibidez. Laburmetrai horrek ere animaliak ditu protagonista, baina hori bera gizakion esparrura ekarrita, kontsumitzen denak eta kontsumo-erekin ongi bizitzeko ezin-

bestekoak ditugun baldintza naturaletan dauzkaten ondorioez ohartarazteko ariketak egin daitezke, birziklapenez haratago. Izan ere, birziklatze-prozesuak berak ere energiaren eta baliabideen kontsumoa eskatzen du, eta arreta kontsumitzen denaren nolakotasunean eta kantitatean ere ipintzea komenigarria da. Garrantzitsua da kontsumo-alternatibak eta norabide horretan egindako ekimenak ezagutzera ematea: bigarren eskuko dendak eta merkatuak, soilik material organikoekin egindako arropak, plastikozko poltsen ordeko ohialezkoak, beirazko edo metalezko kantinplorak eta abar. Ikastetxe edo komunitate mailan ere ekimen kolektiboak sor litezke, hala nola, jostailu eta liburu trukea egiteko eguna, material birziklatuekin jostailuak ekoizteko tailerrak eta abar.

GEHIAGO NAHI ZUEN BALEA

Idazlea:
Rachel Bright

Ilustratzailea:
Jim Field

Itzultzailea:
Bakun S. L.

Argitaletxea:
Ibaizabal, 2021

ISBN:
9788491069690

40 orrialde
3 urtetik aurrera



Ipuin ilustratu honetan Harry balearen istorioa kontatzen zaigu, bizi duen krisi existentziala eta horren aurrean topatzen duen irtenbidea. Harry ozeanoan bizi da, etengabe altxor berriak bilatzen, ezerk ez baitu asetzen. Bilatu eta bilatu ari da, bilatzen duen hori zer den ere ez dakien arren eta, hala, objektuak metatu eta metatu ari da etengabe, baina zer nahi edo behar duen jakin gabe. Halako batean, biztanle ugari duen arrezife batetik igarotzen da; bizilagunak eztabaidan eta elkarri mokoka ari dira, hain berenbaitaratuta non ez diren baleaz ohartu ere egiten, Cristal karramarro

anderea salbu. Haren laguntzaz eta ume garaiak gogora ekarriz ohartuko da balea zoriotsua izateko behar duenez eta, hala, arrezifeko bizilagun bihurtzea erabakitzen du, Cristal karramarroarekin batera han eta hemen bildutako altxorrek euren jatorrira itzultzearekin batera.

Funtsean, istorio honen muinean gizaki ororen ikerketa-bidaia da, zoriona bilatzearena, alegia. Eta dilema ere, berria ez den arren, beti da pertinatea: zerk ematen du zorientasuna, izaera materiala duten ondasunek ala bestelakoek? Bada, Harryren istorio honetan nabarmendu egiten da ondasun materialak aparteko ziorik gabe pilatzeak sortzen duen hutsunea, noraez sentipena eta bakardadea. Aldiz, komunitate baten parte izateak eta bertan harmonian bizitzeak asebetetze eta zorientasun sentimenduak sortzen dizkiote baleari.

Ipuin honek aukera ona eskaintzen du hurrekin afektuak inplikatzeko dituen literatur-tertua bat proposatzeko. Istorioa motel kontatuta dago eta itsasazpia erakusten duten irudi ederrez osatua, gainera. Beraz, irudiak xehe aztertzeaz gainera, irakurri ahala gai filosofikoari lotutako galderak luzatzeko aukera ematen du ipuinaren momentu ezberdinetan: zeren bila ote dabil Harry, zer ote da? Zergatik uste duzue ez dela asetzen? Zer uste duzue dela behar duena? Zein da gustokoen duzuen abestia? Triste zaudetenean, nola lortzen duzue pozik jartzea? Gertatu zaizue jostailu bat nahi izatea, lortzea, eta gero bazter batean uztea? eta abar. Harryren istorioaren bidez eta hurrei kontsumismoarekin eta zorientasunarekin lotutako galderak eginez, gaiari buruzko elkarrizketa existentzial interesgarria sortu daiteke.

Hausnarketa ildo beretik jarraituz eta sormena lantze aldera, Harryren bizitza berriaren abenturak imaginatu eta irudikatze ariketa proposatu daiteke, Harryk oso gauza gutxirekin bizitza erabakitzen du, eta beraz, zertan pasatzen du denbora? Zerekin dibertitzen da? Non eta nola topatzen du zorientasuna? Taldean erantzun ezberdinak topatu ondoren, Harryren egun baten kontakizuna eraiki liteke, edo haren iraganeko egoera berean dauden beste itsas-izakiekin topatu eta haiek nola laguntzen dituen imaginatu liteke, horrekin ere kontaketa osatuz. Istorio horiek modu askotara kontatu litezke ondoren, baina ideia estetikoki polita izan liteke itzal-antzerki bat egitea, pertsonaia ezberdinak banatuta eta txotxongiloak sortuta. Itzal-antzerkiaren bidez itsaso-paisaia ederra sor daiteke eta antzerki

teknika errazagoa da haurrentzat gorputz osoarekin pertsonaia jokatzearena baino. Oso teknika ezaguna da, baina adibide bat ematearren, Zurrunka Antzerki Taldearen "Iraungorriko Marimiri" ikuskizunean, itzal-antzerkia egiten dute txotxongiloekin.



MOMO

Idazlea:

Michael Ende

Itzultzailea:

Mikel Babiano Lopez de Sabando

Argitaletxea:

Santillana-Zubia, 2019

Argitaletxea:


Ibaizabal, 2019

ISBN:

978-84-16839-35-3

328 orrialde

12 urtetik aurrera



Michael Enderen klasiko ezagunak, 1975ean argitaratua izanagatik, berebiziko balioa dauka oraindik ere. Momo neskatala umezurtza da eta anfiteatro zahar baten aztarnetan bizi da. Bertako bizilagunek oso gogoko dute, entzuten dakielako, eta bi lagun handi egiten ditu: Gigi eta Beppo. Oso zoriontsuak dira gizon grisak iritsi eta helduen denbora bereganatzen duten arte. Gizon grisek helduei sinestarazten diete lagun-artean, familian edo egonean igarotzen dutena denbora galdua dela eta denbora hori guzti hori haien Denboraren Aurrezki Kutxan sartuz gero, aberastuko direla. Hala, helduek geroz eta denbora gutxiago dute harremantzeko, baita euren seme-alabekin

egoteko ere. Haurrak eta Momo bera dira gizon gris en amarruan eroriko ez diren bakarrak, baina haurrak ere hiritar eredu-garri bilakatzeko egoitza batean sartzen dituzte. Hala, Momoren esku geratzen da egoera distopiko horri irtenbidea bilatzea, eta halaxe egingo du, Orduaren Maisuaren eta Kasiopea dortokaren laguntzaz.

Momo jendarte industrializatuen eta aurrerapenaren idearen arrisku handienerako bati buruzko istorioa da. Ongizate gizarte bermatu ahal izateko aski garbi izan beharra dago zer den ongizatez dugun hori. Eleberriko helduek alderdi materiala jartzen dute pertsonal edo izpirutalaren aurretik, arrakasta soilik diruarekin lor dezaketela sinetsita. Alabaina, haien denbora guztia sakrifikatzen dute diru truke, lanaz gairi beste bizitzarik ez dutela. Hala, eleberriak elementu fantastikoak erabiltzen dituen arren (gizon grisak, Orduaren Maisua, Kasiopea dortoka eta abar), gaur egungo gizartearen eta, oro har, gizarte industrializatuaren eta kapitalismo neoliberalaren testuinguruan kontsumoaren eta ekoizpen arduratsuen bueltako betiereko dilemak planteatzen ditu: non dago kontsumoaren eta kontsumismoaren arteko muga? Zer sakrifikatze prest gaude gehiago kontsumitu ahal izateko eta zergatik, zertarako? Zer behar du gizakiak zoriontsu izateko? Jakina, Momo eleberrian dilema horiei erantzun argia ematen zaie: arduragabeko kontsumismoak eta bizitza lanean emateak ez du zoriontasunik ekartzen, guztiz kontrakoa baizik: amarru bat besterik ez da.

Momo irakurketa sakon eta konplexua da eta, beraz, irakurleko gaztearen ezaugarrien eta irakurketari eskaini nahi zaion denboraren arabera, irakurketa modalitate bat edo beste egokiagoa gerta liteke. Esate baterako, atalka irakurri eta aldizkako tertulia dialogikoak egin litezke, irakurketaren ulermena laguntzeko. Nolanahi ere den, puntu garrantzitsuenetako bat da eleberriko distopiaren eta errealitatearen arteko paralelismoa zertan den ulertzea, hau da, zertan interpelatzen duen literatura testuak gure errealitatea. Esan gabe doa,

jakintza literario-artistikoa zabaldu nahi izatekotan, genero gisa distopian sakontzeko aukera ematen duela Enderen lan honek, adinaren arabera W. Camus eta Ch. Grenier-en *Cheyenes 6112* (1974), G. Orwell-en *Animalien etxaldea* (1945) edo R. Bradbury-ren *Fahrenheit 451* (1953) irakurgai klasikoak ere planteatu daitezkeelarik. Bestalde, *Momo* eleberriaren oinarritutako filmea Youtube plataforman dago gaztelaniaz eskuragarri eta ariketa interesgarria izan daiteke eleberria eta filma konparatzea: ezberdintasunak, antzekotasunak, ezabatutako eta gehitutako elementuak eta abar.

Ekoizpen eta kontsumo jasagarri eta arduratsuen gaian sakontzeko, hausnarketaren oinarrian honako hau ipini beharko iltzateke: eleberriaren kontaktaren denbora eta norbere edo ingurukoaren errealitatearen arteko alderaketa. Solasaldi gisa planteatu liteke ariketa, baina baita bakarkako jarduerak gisa ere. Bestalde, 70eko hamarkadan existitzen ez zen baina gaur egungo jendartearen denbora kopuru oso ugaria hartzen duen elementu berri bat bada, lanaz gairi teknologia berriak eta, bereziki, sare sozialak nahiz bideo-jokoak. Gai horiekin lotutako animazio-film labur eta mutu distopikoak asko ugaltzen ari dira azkenaldian eta interesgarria izan liteke, hausnarketa estimulatuzko, irakurketa beste euskarri horietan sortutako ekoizpenekin elikatzea. Ikus-entzunezko bi adibide dira *Wake up* eta oso ezaguna egin den *Are you lost in the world like me?*



13. GIH

KLIMA BABESTEKO EKINTZA



[Neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko](#)

Iratxe Esparza Martin

OIHANA

Autorea:
Marina Gibert

Argitaletxea:
Pamiela - Kalandraka, 2021

ISBN:
978-84-9172-246-5

36 orrialde
3 urtetik aurrera



Gaur egungo helburu nagusietako bat da hurrek, txiki-txikitatik, munduko ekosistemak ezagutzea eta ulertaraztea zein nolako garrantzia daukaten guztion bizimoduan. Horrela bakarrik lortuko da adin goiztiarretik ingurumenarekiko kontzientzia piztea. Haur Hezkuntzan belaunaldi berriak hazten dira eta hurrei klimaren aldeko etorkizuneko ekintzaileak izateko prest egoteko kontzientzia esnarazten duten baliabideak eskaini behar zaizkie. Lehenengo eta behin, komeni da babestu behar dena haien testuingurutik urrun egon arren gertutik ezagutzea; horregatik, Mendebaldeko mundu-ikuspegia aldatzea nahitaezko baldintza da, baliabide egokiak eskura jarri gero ingurumenareki-

ko jokabideak errespetuzkoak eta positiboak izango direlako.

Oihana liburuko azalean, hostoen artean, irakurleari behatzen dion haur bat dago eta kontrazalean, aldiz, lore koloretsuetan izkutatzen diren begi horiak. Haien liburuan barneratzeko gonbitea luzatzen dute eta jakinmina piztu, umeak oihaneko misterioak pixkanaka-pixkanaka argitzen joateko. Liburua ireki eta barneazalean bertan hasten da protagonistaren istorioa, oso trazu sinpleak erabiliz oihanean zehar egiten duen bidaia liluragarria kontatzen da. Alabaina, haurra ez da ibilbidean bakarrik egongo: hainbat animaliarekin egiten du topo, eta animaliek helmugaraino heltzen laguntzen diote. Liburuak lehenengo momentutik harrapatzen du irakurlea. Hasteko, ilustratzaileak perspektibarekin jolasten du, barneazaleko irudiek gizakion txikitasuna oihana bezalako paraje natural batean irudikatzen baitute; protagonista goitik ikusten da aurrera begira, oihanaren handitasunean sartzeko eta bidaia hasteko prest. Hala ere, oihan berezi honetan ezustekoak hartuko ditu irakurleak, bideak aurrera egin ahala, oihanaren sakontasunetik begiratzen diotela nabarrituko baitu. Protagonista suge zuri baten gainean landaredi hostotsuan barneratu bezain pronto, tximeletek gidatuko dituzte haren pausoak, tigre urdinarekin batera deskantsatuko du, kokodriloaren bizkarrean ibaia gurutzatu eta gorila baten eskutik ate zuri misteriotsu batera helduko da...

Zer topatuko ote du irakurleak atearen beste aldean? Bidaiaren lehenengo zatia landareen eta animalien kolore biziek ezaugarritzen badute, ate zuriaren atzean espazioa eta giroa aldatzen dira hiriko grisak eta beltzak nagusi-

tzen direnean. Hala ere, irekita geratzen den atetik oihanaren koloreak sartzeko, eta hiriaren iluntasuna koloreztatzen hasten da. Liburuak arreta-dei garbia egiten du, naturaren eta hirien arteko sinbiosia erdiesteko beharra aldarrikatuz, klima babesteko gure herriak eta hiriak jasangarriagoak izan behar direlako. Haurrak ohartuko dira klima errespetatzen ez duten ekintzak baztertu behar direla eta, era berean, naturak inguratuta bizitzeak dakartzan onurak asko eta asko direla. Hala, bi gogoeta nagusi landu daitezke: lehenengoa, gizakiok mundu honetako sistemaren barruan beste pieza bat besterik ez garela eta, bigarrena, guztion zeregina dela natura babestea eta klima aldaketa saihesteko elkarlanean aritzea.

Erakargarria izateaz gain, liburua gaitasun kognitiboa garatzeko eta hizkuntza artistikoa haur hezkuntzatik jorratzeko oso aproposa da. Umeekin gaitasun linguistikoa eta ahazkotasuna lantzeko ezin hobea, album ilustratu honen berezitasuna baita mutua izatea, hots, hitzik gabekoa. Album mutuek hizkuntza unibertsala gordetzen dute eta geletan gaitasun komunikatiboa eta gaitasun literarioa garatzeko tresnak dira, adibidez, elkarriketa bidezko irakurketak proposatuta. Sarritan, umeek literaturarekin daukaten lehenengo kontaktua haur hezkuntzako etapan gertatzen da; horregatik, gisa honetako albumak oso erabilgarriak dira lan literarioak haurren eskuetan jartzeko. Horrez gain, album mutuek irakurketa konnotatiboa sustatzen dute, umeek irudiek iradokitzen dietena espermentatzen dutelako eta, hortaz, artearen plazera sentitu. Lehenengo zikloan, koloreen presentzia eta animalien ahotsak irudika daitezke, eta bigarren zikloan, berriz, protagonistari zer gertatzen zaion kontu dezakete, narrazio sinplearen egitura ikasiz eta lehendabiziko interpretazioak eginez, hau da, irudimenak lagunduta haur bakoitzak bere irakurketa pertsonala osa dezake. Zenbat eta interpretazio-gaitasun handiagoa izan, orduan eta handiagoa izango dira literaturarekin gozatzeko emozioa eta premia. Ondorioz, album mutuek eskaintzen dituen aukera estilistikoetatik abiatuta, hitzarmen komunikatiboa, literaturarekiko zirrara eta sormena areagotzen dira, eta hurrek esanahi eta hizkuntza sinbolikoa lantzen dute bien bitartean.

ALMA DE ELEFANTE

Idazlea:
Andrea Maceiras

Ilustratzailea:
Jordi Solano

Argitaletxea:
Anaya, 2022

ISBN:
978-84-698-9085-1

159 orrialde
8 urtetik aurrera



Andrea Maceirasek idatzitako eleberriak oso modu finean erakusten ditu zer-nolako kalteak eragiten dituen ekosistema handietan klima-aldaketak. Ideia horien guztien artean, badago bat gogoeta biziki bultzatzen duena edozein Garapen Iraunkorrerako Helburutan haurrak eta gazteak hezitzeko: "tximeletaren efektua". Hau irakur daiteke liburuan: "Los seres vivos estamos conectados entre nosotros. Las plantas, los humanos, los animales... Todos tenemos un alma enorme en la que caben muchas. Porque todos somos uno y somos el mundo entero a la vez".

Tximeletaren efektuak metafora ederra osatzen du eta literaturaren eta kaosaren teoriaren arteko lotura egin daiteke liburuaren irakurketa sinbolikoa eta kog-

nitiboa sustatzeko. Zientzia eta literatura: itxuraz zerikusirik ez daukaten etengabeko ekintzen sekuentziak ondorio iragarrezinak izango ditu. Gure ekintzak eta erabakiak konektatuta daude eta munduko sistemaren eta ekosistemen nahitaezko atalak dira, hau da, liburuan jasotzen dugun ideia nagusia da norbanakoaren tokiko jarduerak eragina daukala mundu globalean. Hori izango litzateke lehen hezkuntzako geletan lantzeko kontsiderazioa, ikuspegi globalarena, alegia. Irakurketaren eta hausnarketaren helburu nagusia da gure inguruetik baino haratago ikustea eta, aldi berean, ulertzea mundua bizidun guztion dela, klima eta natura babestu ezean guztion kalterako izango dela. Gaiari sarrera emateko [Intermon Oxfamek](#) sortutako bideoa ikus daiteke.

Liburuan gure portaerek Suyren eta Lawenen bizimoduan eragina dute. Protagonistak bikiak dira eta Sat Naapan bizi dira, Asiako oihaneko herrixka batean, hiritik oso urrun eta antzinako ohituretan murgilduta. Pertsonaiek naturarekiko izugarritzko errespetua erakusten dute, naturak ematen dienaz bizi dira, oihanari opariak egiten dizkiote eta landare, animalia eta harkaitz bakoitzak arima daukatela sinesten dute. Oreak bizi dira eta bat egiten dute naturarekin. Hala ere, ez dira gutxi Sat Naapa mehatxatzen duten arriskuak: ebakitzen dituzten oihanaren zuhaitzen eremuak gero eta zabalagoak dira, herrixkatik gertu lantegiak eraikitzekeko proiektuak, turisten etorrera... Horiek guztiek ondorio ekologiko, sozial eta kulturalak dituzte Suy eta Lawenengan. Egun batean, Tep elefantea topatzen dute oihanean. Tep esklabu bizitzera kondenatuta dago, turisten dibertsiorako erabiltzen dutelako. Hala ere, elefantearen jabeen iloba bihotz oneko mutiltxoa da eta biek batera ihes egitea erabakitzen dute. Bi anaia-arrebek ihesaldian laguntzen diete, elefantea hil nahi duten pertsonengandik urrunduta eta babestuta. Horrela, Suyk, Lawenek eta Tepek abenturaz jositako bidaia hasten dute oihanean zehar, Ru izeneko lurralde eder, izkutu eta sakratuaren bila. Gelan [Global Forest watch](#) web-orrialdea eskura izatea oso aberasgarria izan daiteke leku guztietako basoak hobeto babesteko datu, teknologia eta tresna berrienak hainbat hizkuntzetan eskaintzen dituelako, mapa interaktiboak ere erabilita.

Liburuan urtaroeak eta uztaldiek mugatzen dute lurralde honetako denbora, eta orduan ohartzen gara zenbatekoa den daukagun naturarekiko deskonexioa. Nagusiek zein gazteek irakurtzeko eleberria da Maceirasena, ederki narratutakoa eta hizkuntza

garbiaren bidez emana, eta bide ematen du gure inguruari begiratzeko modua aldatzeko. Lurrak eta geuk bizirauteko klima eta natura babesteko beharra azpimarratzen da lan honetan, biodibertsitatea zaintzea nahitaezkoa delako Planetak daukan zauria sendatzeko. Halaber, haurrek eta gazteek ulertuko dute Lurraren iraunkortasunaren alde egiteko gertuko ingurunea ezagutu eta dastatu behar dutela gizakion eta ingurumenaren arteko harremanak sustraituta. Gainera, eleberrian baliabide estetiko asko daude, oso aproposak hizkuntza sinbolikoaren onurak nabarmentzeko. Izan ere, irudi eder batek ematen dio hasiera eleberriari: protagonistak lurra eta haizea bezalakoak dira, Lawenek elefantearen arima dauka eta Suyk, aldiz, tximeletarena.

WÁLUK

Idazlea:

Emilio Ruiz

Ilustratzailea:

Ana Miralles

Itzultzailea:

Bego Montorio

Argitaletxea:

Astiberri, 2017

ISBN:

978-84-16880-38-6

56 orrialde

10 urtetik gora



Ikuspegi literarioari eta artistikoari erreparatuz gero oso aberasgarriak izan arren, ez dira asko euskaraz argitaratutako komikiak. Ana Mirallesen eta Emilio Ruizek ilustratutako eta idatzitako saga baten lehenengo liburukia da *Wáluk*; bigarrena, *Bidaia handia*, 2018an argitaratzen da eta hirugarrena, *Txakur handiaren bidea*, urte bat beranduago, 2019an. Lehen Hezkuntzako haurrek gaia sakon dezaten eta komikiak eskaintzen dituzten baliabideetara geletara hurbiltzeko hiru testu eredugarri dira. Izan ere, gaur egun haur eta gazte literaturan nabarmendu daitezkeen osagai ugari dituzte: protagonistak animaliak dira, gaiaren tratamendua, errealismo kritikorako joera, narrazioaren armonia, pertsonaiekiko identifikazioa edo umorea. Horiek guztiak, gainera, irudi eta kolore biziak uztartzen dira.

Istoriaren hasieran narratzailearen ahotsa irakurtzen/entzuten dugu eta, zineman egongo bagina bezala, *off-ahotsak* Wáluk txikia aurkezten digu. Irudiek izugarritzko indarra daukate eta gertatutakoaren berri ematen digute; orduan, fokuaren mugimenduak Artikoren handitasunaz jabetzen laguntzen digu. Urdin-zuriek eta gaueko iluntasunak hartz protagonista babesten dute izotzetan egindako kobazuloan. Izan ere, fokuaren lekualdatzeak eta intentsitateak gure begiradak zuzentzen dituzte istorioaren protagonista nagusiarengan pausatu arte. Halaber, ñabardurez betetako grisak, beltzak, urdinak eta zuriak kolore-sorta zabala osatzen dute irudietan liburuaren bereizgarri nagusietako bat izanik.

Zergatik irakurri *Wáluk*? Hasteko, Artikoko inuiten kultura ezagutzeko abagunea luzatzen du: mundu globalizatu honetan, non denok berdintzeko joera nagusitzen den, indigenen eta kultura gutxien existentzia ikusaraztea nahitaezkoa da. Koka ditzagun mapan Artikoko biztanleak, ohar gaitzen desberdintasunen balioaz, ikas dezagun haiek erakusten duten naturarekiko errespetuaz eta sentitu Lurrarekin orekan bizitzeko beharra. Azken finean, Lurra guztion da eta geuk egindakoek kalte konponezinak ekar ditzakete.

Jarraitzeko, aldaketa klimatikoa aipatu gabe, komikiak gaia erdigunean jartzen du: baliabide naturalak direla eta, Artikoa gero eta ugariagoak diren petrolio-plataformek hango biztanleen bizimodua eteten dute. Horrez gain, agerian geratzen dira ontzi-enpresek zonaldean antolatzen dituzten ibilbideak, turisten nahiak asetzea xede dutenak. Ikasleek arduratsu jokatu behar dutenez gero, liburua ikuspegi globala

eraikitzeke oso erabilgarria da, klima-aldaketarekin lotutako arriskuak nabarmentzen direlako.

Wáluk Artikoa bizi den hartz zuri bat da, amak abandonatu duen hartz txikia. Elurretan dabil gosetuta oraindik oso gaztea eta eskarmentu gabekoa delako. Goiz batean hegazti-kolonia bat topatzen du, eta arrautzak irensten dagoela hartz zuri erraldoi batek erasotzen du. Noraezean dabil Wáluk Eskimo hartz zaharrarekin topo egin arte. Azken horrek dakien guztia irakatsiko dio Wáluki: ehizatzeke ezinbestekoa den pazientzia, gizakiak nortzuk diren eta haiek eragindako hondamendiak edo hartzekiko elkartasuna sendotzeko beharra.

Gainera, liburua oso gomendagarria da komikiak Lehen Hezkuntzako geletako korpusean sartzeko. Irakurketa gidatuak proposa daitezke irakurlearen, testuaren eta irudien artean izugarritzko konplizitate sortzen delako. Ziur aski, lehenengo begiradan irakurleek osotasunera joko dute, geroago, pixkanaka-pixkanaka, irakurketa etenarekin hasteko: irudietatik testura eta testutik irudietara. Estetikoki *Wáluk* liburua oso egokia da irakaskuntzan gaitasun artistikoaren garrantzia azpimarratzeko: nabarmendu nahi diren mezu eta ekintzen arabera, bineten tamaina aldatzen da, edo kolore biziagoek protagonisten sentimenduak eta kanpotik datozen arriskuak adierazten dituzte. Halaber, naturarekin zerikusia duten koloreek distira eta intentsitate berezia daukate. Horrez gain, hizkuntzan sakontzeko baliabideak ere esanguratsuak dira, kasurako, adierazi nahi den soinuaren arabera edota akzioaren azkartasuna islatzeko helburuarekin, neurri ezberdinetako onomatopeia ugari daude.

Hausnarrarazteko komikia da, lagunarteko maitasuna goraiatzeko gain, aldaketa klimatikoaren ondorioak ere erraz identifikatzen dituena, dagoeneko hainbat habitatetan naturak jasaten dituen kalteak konponezinak direla erakusten duena. Beraz, sustatu daitezkeen konpromisoa da estrategia komunak eraikitzearena, bestela, berotegi-gasen emisioek Planetan egindakoak guztiok pairatuko ditugu. Komikiaren bidez testuinguru zehatz bat aztertzen da eta ikasleek, gaitasun literarioa lantzearekin bat, Artikoa Planetako ekosistema handienetako bat dela ezagutuko dute eta baita glaziarrak eta biodibertsitatea arriskuan daudela ere.

14. GIH

ITSASPEKO BIZITZA



[Ozeanoak, itsasoak eta itsas balibideak mantentzea eta modu jasangarrian erabiltzea garapen jasangarriari begira.](#)

Maite Aperribay-Bermejo

IZAROREN IZARRA


Idazlea:
Maribel Aiertza

Ilustratzailea:
Aitziber Alonso

Argitaletxea:
Ibaizabal, 2020

ISBN:
978-84-9106-972-0

24 orrialde
5 urtetik aurrera



Izaro eta bere gurasoak hondartzan daude. Izaro hondarrezko gazteluak egiten dabil, baina olatu bat etorri da, gazteluen gainetik pasa da eta dena desegin du. Izaro itsasoarekin haserretu da, olatuak gaztelua suntsitu duelako. Ama Izaro lasaitzen saiatu da. Itsasoak nahi gabe egin duela azaldu dio. Aitak azaldu dio itsasoko ura joan-etorrian dabilela beti arraintxoak bizi daitezen, eta joan-etorri horretan gauzak ekarri eta eramaten dituela nahi gabe. Izarok badaki hori, txikia zela itsasoak ahate formadun flotagailu bat kendu eta ez baitzion inoiz bueltatu. Alainen baloia ere eramane zuen eta Enekoren surf taula puskatu haitzen kontra joaz. Izarok purrust egiten du, itsasoak gauza politak eramane eta zakarra ekartzen duela dio.

Olatu artean zutik dagoela, zerbaitek kili-kili egin dio Izarri. Itsas izar bat da. Izarrek uste du zerutik jausi dela, baina aitak azaltzen dio itsasoan bizi den izar bat dela, itsasoak ere badituela bere izarrak eta bere zaldiak, eta ur azpian beste lur bat ere badagoela, landarez eta animaliaz betea. Izarrek izarra hartu du eskutan eta hurrengo olatuari eman dio, etxera eramane dezan.

Irakurketaren ondoren itsas izarrei buruzko informazioa jasotzen duen [bideo labur hau](#) ikus daiteke. Ikasleei jakinarazi beharko genieke itsas izarrek ere desagertzeko arriskuan daudela, batik bat klima beroarengatik, Paul Picadoren (*El Correo*, 2021-01-17) artikulua [honetan](#) azaltzen den bezala. Virginie Aladjidi-ren *Itsasoaren inbentarioa* (2021) obran itsasoko biodibertsitate aberatsari buruzko inbentario bat egiten da eta galzorian dauden zenbait espezie identifikatzen dira. Itsasoaren biodibertsitatearen garrantziaz jabetzen lagundu ahal digu lan honek ere.

Donostiako Aquariumaren [webgunean](#) LH1 eta LH2ko ikasleei bideratuta dagoen "Itsasoaren oroimena" deritzon ariketa sorta egin liteke irakurketaren ondoren eta, zer esanik ez, Donostiako Aquariumera bertara edo Mañariako Hontza Museora bisita antolatu daiteke itsasoko animalia eta ekosisteman sakondu nahi izanez gero.

Atzerriko hizkuntzako ikasgaien bidez ere egin liteke lotura lan honekin; izan ere, National Geographic Kids [webgunean](#) itsas izarren inguruko informazioa jasotzen da. Ikasleen hizkuntza mailaren arabera irakaslearen laguntza beharrezko suerta daiteke testua irakurri eta ulertzeko.

¿DÓNDE ESTÁN LOS PECES? AYUDA A FINN Y A SKIP A SALVAR EL OCÉANO

Idazlea eta ilustratzailea:
Brendan Kearney

Itzultzailea:
Anna Nualart

Argitaletxea:
DK Dorling Kindersley, 2021

ISBN:
978-0-2415-0778-0

32 orrialde
5 urtetik aurrera



Ilustrazio ederrez beteriko istorio honek itsasoa du kokaleku nagusi. Finn arrantzalea goizean goiz esnatzen zen Skip txakurrarekin batera arrantzara joateko. Finnek egurrezko ontzi txiki bat zeukan portuan, izugarri handiak ziren itsasontziz inguratua. Egunerok legez, behin Finnek eta Skipek arraunontzia hartu zuten eta itsas zabalerantz abiatu ziren. Baina egun hartan ikusitako itsas txakurrak oso triste zudela ohartu ziren, eta arrantza egin ohi zuten tokira iristean amua bota eta zain egon ziren, beti bezala. Arrainek ez zuten amua irensten. Skipek zerbait ikusi zuen itsasoan mugitzen eta uretara salto egin zuen. Ikusitakoa plastiko zati bat baino ez zen. Itsasoa plastikoz betea zegoen. Finnek plastikozko hondakinak jaso zituen, banan-banan, itsasontzia zakarrez bete arte. Portura bidean zihoazela, hondartza garbitzen

zebilten haur talde bat ikusi zuten, eta haiengana hurbildu ziren. Haurrek Finni azaldu zioten itsasoan plastikozko hondakin asko dagoela, eta sarri itsas animaliak plastiko hondakin horietan harrapatuta gelditzen direla. Ondorioz, batzuek ezin dute ongi igeri egin, eta beste batzuk gaixotu egiten dira plastikoak janda. Haurrek azaldu zioten plastikoa ez dela desegiten, euria eta haizea direla medio plastikoa itsasora heltzen direla, mikroplastikotan zatikatzen direla eta edaten dugun ura ere kutsatzen dutela.

Liburuan birziklapenaren aldeko aldarrikapena egiten da, objektuak berrerabiltzearen aldeko aldarrikapena eta kontsumo murrizketaren aldeko aldarrikapena. Horregatik Finnek, Skipek eta hondartzan ezagutu dituzten lagunak itsasoa garbitzen jarraitzen dute animaliak itsasora bueltatzen diren arte.

Zer dakite ikasleek plastiko eta hondakinei buruz? Zer dakite birziklapenari buruz? Aurre-egutza azalertzeko galderak egin ondoren, Berria Ikasgelako artikulua bat irakur daiteke eskola-orduan. Artikulu [honetan](#) plastiko eta mikroplastikoei buruz hitz egiten da. Beste [honetan](#), aldiz, Zazpigarren kontinente bezala ezagutzen denari buruz hitz egiten da. Bietan da gai nagusia itsasoaren kutsadura. Artikuluak irakurri ondoren eztabaida egin daiteke: zer egin dezakegu gure egunerokotasunean plastikoen erabilera murrizteko? Zer egin dezakegu eskolan? Bestalde, WWF erakundearen [webgunean](#) plastikoen erabilera murrizteko zazpi gomendio jasotzen dira. Eztabaidaren ondoren gomendioak ingelesez landu daitezke LHko hirugarren zikloko ikasleekin eta ikasleek proposatu dituzten ekintzekin zerranda hori osatu daiteke. Beste zikloetako ikasleekin ere lanketa bera egin daiteke, eta horretarako irakasleak WWFren gomendioak euskaratu ditzake. LHko azken zikloko ikasleekin *Océanos de plástico* (Sandrine Feydel, 2009) [dokumentala](#) ere ikus daiteke.

MARMOKIÑE

Idazleak:

Gala Aierbe eta Joxemari Iturralde

Ilustratzailea:

Jokin Mitxelena

Argitaletxea:


Elkarlanean, 2000

ISBN:

978-84-8331-588-2

56 orrialde

8 urtetik aurrera



Marmokiñe marmoka itsasondoko haizpe batean bizi da. Marmokiñek haurren laguna izan nahi du, baina haurregana hurbiltzen denean korrika, oihuka eta negarka alde egiten dute. Marmokiñe triste dago, nahiz eta itsasoan badituen lagunak, Txipiroinaiz, Sardintxa eta Antunio adibidez. Udan bere bizilekua arrainez betea egoten da, baina uda amaitzean eta ura hozten denean arrain-familia askok alde egiten dute ur epelagotara. Igandetean, inork arrantza egiten ez duen egunean, Itsas Zaldien Kofradiakoek dantzaldia antolatzen dute faroan. Iaz izurde musika-talde batek kontzertua eman zuen, abeslaria ahots oso ozenero Izurgi zen. Itsaspeko biztanle guztiak zeuden

Izurgik noiz abestuko zain. Kontzertuaren ederrenean Marmokiñe eta lagunak ohartu ziren zenbait arrain urduritzen hasiak zirela. Txipiroi talde batek garrasi egiten zuen itsaspeko bizilagun guztiei bolanta sareak zetozela jakinarazteko. Marmokiñe harritu egin zen, igandetean arrantzaleek ez baitute arrantzarik egiten. Kontzertua eten egin zuten eta zer egin zezaketen pentsatzen hasi ziren guztiak. Antuniori plan bat bururatu zitzaion: Izurgik inguruko txipiroi guztiei dei egingo zien eta itsasontzia zegoen lekura hurbilduko ziren.

Urrutian itsasontzi bat ikusi zuten, Trumoi Beltz izenekoa. Bertan Antzinako kapitaina eta lau arrantzale zeuden, Beti-Triste, Beti-Haserre, Beti-Beldur eta Beti-Zikin. Farora hurbiltzen zioan itsasontzia eta sare bolantak batera eta bestera bota zituzten. Sareak jasotzen hasi zirenean harritu ziren, arrain alerik ez zegoen-eta, eta sare guztiak beltz-beltz zeuden. Ingurua kutsatua zegoela uste zuten. Kaka beltz hura petrolioia zela iruditu zitzaion eta ospa egin zuten. Antunioaren plana arrakastatsua izan zen eta arrantzaleak uxatzea lortu zuen: txipiroiek beraien tinta guztia hustu zuten, sareak zikindu zituzten eta arrantzaleak itsasoa kutsatuta zegoela uste izan zuten. Orduetik bolantak erabiltzen dituzten itsasontzirik ez da bueltatu faro ingurura.

Donostiako Aquariumaren [webgunean](#) marmokei buruzko informazio orri bat dago, ariketa labur batzuekin. Ikasleekin landu daitezke, kutsadura, arrantza teknikak eta abar lantzerara pasatu aurretik.

Kutsadura, itsasoen azidotzea edo gehiegizko arrantza dira, besteak beste, itsaso eta ozeanoen mehatxuetako batzuk. Kasu honetan arrantza-tekniken artean bolantarena aipatzen da; bada, dagoeneko debekatua dagoen teknika da. Bolantak arrantzaleek erabiltzen dituzten sare luzeak dira, zeharkatzen saiatzen den edozein arrain bertan harrapatzen dutenak. [Argia aldizkarian](#) jasotzen zuten bezala, "Europako Batzordeak 2001. urtearen bukaeran onetsi zuen arrantzako aparailu horiek erabiltzeko debekua agintzen zuen dokumentua. Aparailu horien erruz, espezie asko desagertuz joan dira, modu masibo eta intentsiboan harrapatzeagatik" (Udalaitz, 2002ko martxoaren 17a). Irakurketa honekin ikasleei jakinaraziko zaie itsasoa agortzen ari garela, arrainak ugaltu daitezkeen baino azkarrago ustiatzen baititugu eta, ondorioz, espezie asko desagertzeko arriskuan daudela. Alternatiba bakarra da arrantza jasangarria sustatzea.

Arrantza jasangarriaren nondik norakoak ezagutzeko, Pasaian kokatua dagoen [Mater Museora](#) irteera antola daiteke. Edo museoaren webgunean eskaintzen diren zenbait gida eta dokumentu erabili gaia eskolan lantzeko, adibidez orain zenbait urte antolatu zuten "Izan Itsas Zaindari Kanpaina". Kanpaina honen helburua arrantza jasangarriaren garrantzia nabarmentzea eta arrainen kontsumo arduratsua bultzatzea da. Kanpainaren baitan itsas-zaindari izateko eskuliburu bat argitaratu zuten, [sarean](#) eskuragarri dagoena. Bertan ekintzara pasatzeko zenbait proposamen jasotzen dira, tartean elikadura ohituretan aldaketak.



15. GIH

LEHORREKO BIZITZA



[Lehorreko bizitza babestea,](#)
[lehengoratzeta eta modu](#)
[jasangarriaren erabili dadila](#)
[sustatzea,](#) [basoak modu](#)
[jasangarriaren kudeatzea,](#)
[basamortutzearen aurka](#)
[borrokatzea,](#) [lurren](#)
[degradazioa inbertitzea eta](#)
[biodibertsitatearen galera](#)
[gelditzea.](#)

Maite Aperribay-Bermejo

AMA ERRALDOIA

Idazlea:
Pello Añorga

Ilustratzailea:
Jokin Mitxelena

Argitaletxea:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen
Zerbitzu Nagusia, 2008

ISBN:
978-84-457-2832-1

36 orrialde
5 urtetik aurrera



Pello Añorgak gizakiaren eta naturaren arteko erlazioaren alegoria bat dakarkigu *Ama erraldoia* obran, eta Jokin Mitxelenaren ilustrazio koloretsuek, eskematiko bezain indar handikoek istorioan murgiltzen dute irakurlea.

Kontakizunaren hasieran aurkezten zaizkigun gizon-emakumeek ez zuten ezer ere, baina bizi ahal izateko zenbait gauza behar zituzten. Biziraun ahal izateko beharrezko zuten lurra aurkitu zuten: zelai berde ederra. Amas hartzeko beharrezko zuten aire freskoa ere

aurkitu zuten kobazulo freskagarriri batean. Egarrria asetzeko beharrezko zuten ura aurkitu zuten laku liluragarri eta sakon batean. Hotzari aurre egiteko beharrezko zuten sua ere lortu zuten. Bizirauteko beharrezkoa zuten guztia zeukatenean, apaingarriak behar zituztela sentitu zuten. Apaingarri horiek egiteko, urrearen bila hasi ziren eta mendizulo batean aurkitu zuten. Kobazuloa kolpatzen, zulatzen eta puskatzen hasi ziren, putzu gorri izugarri bat ikusi zuten arte. Garrasi izugarria entzun zuten orduan eta beldurtu egin ziren. Kobazulotik irten zirenean ohartu ziren zelai berdeak gorriak zirela, oihana beldurgarri bihurtu zela, lakua ikaragarria zela eta kobazulo freskagarria itogarri. Norbaitek garrasika jarraitzen zuen, bihotza puskatu baliote legez. Istorioko protagonistak konturatu ziren garrasiak izaki erraldoi batenak zirela, eta eurak gorputz horren gainean zeudela. Izaki erraldoi hura zen beraien bizileku, eta bihotza puskatu ziotelako gelditu ziren lurrik gabe, ainerik gabe, surik gabe eta urik gabe. Izaki erraldoiak esan zien Amalur izena zuela. Gizon-emakumeak Amalur zaintzen hasi ziren, ohartu ziren-eta osterantzean ezingo zutela biziraun. Orduetik aurrera, gizon-emakumeek Amalur zaindu zuten eta bizitzeko beharrezkoa zuten guztia izan zuten.

Liburu honen irakurketarekin batera landu daiteke euskal mitologia, euskal kulturak badu-eta bere ipuin etiologikoa, munduaren sorrera azaltzen duena. Mitologia gehienetan jainko eta jainkosak zeruan bizi dira, euskal mitologian aldiz gizaki mitologikoak lurra bizi dira, kobazuloetan, mendietan, ibaietan... Euskal kosmologiak lurra du erdigune eta oinarri.

Amalur da euskal mitologiako jainkosa nagusia eta aldi berean Ilargi eta Eguzkiren ama. Berak sortu du mundua, gure ingurune naturala, eta berari esker gizaki eta animalioek elikagai eta bizilekua dugu. Ixabel Millet ipuin kontalariak Amalurren ipuina kontatzen du [bideo honetan](#).

Mendiak, basoak, zuhaitzak, ibaiak... pertsonaia mitologikoen bizileku dira. Basajaun, adibidez, basoaren eta naturaren zaindaria da. Baina mendi, baso eta haran horiek izakion bizileku ere badira, mendiz, basoz eta zelaiz inguratuta bizi baikara Euskal Herrian. Landare eta zuhaitzek protagonismo eta garrantzi handia izan dute euskal usadioetan. Eguzki-lorea, adibidez, euskaldunentzat eguzkiaren irudia izan ohi da; lamiak, deabruak, sorginak eta antzeko jeinu gaiztoak gauzez ibiltzen ziren eta eguzkiak uxatzen zituenez, baserri eta etxe askoren atari eta sarreratan eguzki-loreak ikus ditzakegu, babes gisa. Bakarne Atxukarro eta Izaskun Zubialderen *Euskal mitologia haurrei kontuatua* (Txalaparta, 2015) liburuko lehen ipuinean, "Ekilore" izenekoan, jasotzen da guzti horren berri. Ipuinaren irakurketa dramatizatua eskuragarri dago argitaletxearen [webgunean](#).

Zuhaitzei dagokienez, haritza beti izan da berezia euskaldunentzat eta garrantzi handikoa gure lurra, beti izan da guretzat zuhaitz sakratua eta Euskadiko sinbolo unibertsalena ziur aski. Haritzaren itzaletan ospatzen ziren antzina zeremonia zibil garrantzitsuenak. Gernikako arbolaren itzaletan ospatzen dira oraindik Lehendakariaren eta Bizkaiko Ahaldu Nagusiaren kargu-hartze eta zin-egitea. XIX. mendean Iparragirrek Gernikako arbolaren omenez idatzi zuen kanta, askok euskal ereserkitzat daukatena, eta ideioek eta testu hori ere landu daiteke aztergai izan dugun lanaren aitzakian.

TXOKOLATEA BASOAN

Idazlea:
Juan Kruz Igerabide

Ilustratzailea:
Jon Zabaleta

Argitaletxea:
Elkar, 1993

ISBN:
978-84-7917-302-5

58 orrialde
8 urtetik aurrera



Mariorratz familia bat basoan bizi da. Gurasoek mariorratz-kumeei beti esaten diete etxetik gertu hegan egiteko eta ezagutzen dituzten jakiak baino ez jateko. Behin, oso usain gozoa zeukan zerbait usaintzen dute eta mariorratz-kumeak usaina jarraituz hegan egiten dute. Haur talde bat egon da basoan eta jan-hondarrak utzi dituzte, baita hondakinak ere. Haurretako bat galdu egiten da basoan eta mariorratz-kumeek herrira bueltatzen laguntzen diote. Horrenbeste alden du dira, non orain beraiek diren etxerako bidea aurkitzen ez dutenak. Mariorratz-gurasoak kumeen bila dabilta. Basoko animalia guztiei galdetzen diete mariorratz-kumeak ikusi ote dituzten, baina inork ez

ditu ikusi. Gauez, animalia guztiak lo daudela, Hontz jaunak laguntzen die: lagunei dei egiten die eta basoko hontz guztiak mariorratz-kumeen bila abiatzen dira. Aurkitu ere aurkitzen dituzte. Mariorratz-kumeen eta haurraren arteko adiskidetasuna luzaroan mantenduko da eta elkar lagunduko dute aurrerantzean.

Lur gaineko bizitzaren garrantzia azpimarratu daiteke liburu honen irakurketarekin. Lur gaineko ekosistemei buruz hausnartu daiteke: basamortuak, tundrak, oihanak, basoak... Gure inguruko ekosistema lurterra baso epelarena da, urtaroen artean desberdintasunak daude eta horri esker landare eta animalien espezie ugari bizirik dira. Ekosistemok mantentzeko, ezinbestekoa da gizakiok baso epelotako fauna eta flora errespetatzea eta zaintzea. Galzorian dauden espezieen, animalien zein landareen merkataritza arautzeko eta kontrolatzeko nazioarteko hitzarmena 1973an sinatu zen, Washingtonen. Gizakiok baliabide horien ustiapen izugarria egin dugu eta, ondorioz, asko dira mehatxupean edo galzorian dauden espezieak. Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritza Erakundearen (FAO) arabera, arraza bat arriskuan dago arraza horretan ugaltzeko gai diren emeak mila baino gutxiago badira.

Natura Babesteko Nazioarteko Batasunak (ingelesez IUCN, *International Union for Conservation of Nature*) "Galzorian dauden espezieen zerrenda gorria" izeneko zerrenda batean jasotzen ditu mundu mailan galzorian dauden espezieak. [Zerrendan](#) jasotzen diren datuen arabera, munduko 40.000 espezie baino gehiago daude galzorian. Espainian, adibidez, WWF erakundeak otsoen, katamotz iberiarren, bisoi europarraren eta harraparien desagertzearen kontra lan egiten du. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak 2001ean burutu zuen Euskal Herriko bertako abere arrazen katalogo ofiziala, eta Euskal Herrian badirudi bertokoak diren 25 bat animalia-arraza daudela, nahiz eta hauetako asko arriskuan dauden. Arraza horiek bizirik mantentzeko lan egiten dute zenbait elkartek eta gaiaren berri ematen da EITBko [bideo](#) labur batean. Ikasbilen [webgunean](#) ere "Desagertzeko zorian dauden animaliak" izeneko ariketa sorta egin daiteke. Haurrek espezieak mantentzearen garrantzia ikusi ahal dute, "inguruko naturaguneekin konektatzeko eta gizakiak ez diren Lurreko bizidunetako enpatia sentitzeko" gai izango dira eta, ondorioz, baita biodibertsitatearen kontserbazioaren alde egiteko ere, UNESCOren [Garapen Iraunkorrerako Helburuetarako Hezkuntza: ikaskuntza-helburuak](#) lanean zehazten den bezala (40. or.).

ZUHAITZAK LANDATZEN ZITUEN GIZONA

Idazlea:

Jean Giono

Ilustratzailea:

Mikel Mendibil

Itzultzailea:

Mikel Vilches

Argitaletxea:


Denonartean, 2013

ISBN:

978-84-15756-11-8

50 orrialde

8 urtetik aurrera



Jean Gionok 1913an kokatzen den istorio hau argitaratu zuen 1953an. Protagonista, Elzéard Bouffier, fikziozko pertsonaia bat da. Autoreak hamaika hizkuntzatarata itzulia izan den kontakizun honen pertsonaia nagusia asmatu zuen zuhaitzak maitaraztea helburu zuen istorio bat kontatu ahal izateko. Elzéard Bouffier fikziozko pertsonaia bada ere, Gionok berak aitortzen du Probentzako eskualde hura basoberritzeko ahalegin handiak egin zirela batez ere XIX.

mendeko azken bi hamarkadetan eta lehen mundu gerrara arte.

Istoria Frantziako Probentzan kokatzen da eta protagonistak bertan bizitakoa jasotzen du. Kontakizuneko narratzailea Probentzako lurraldeetan barrera ibili ondoren ohartzen da lur mortua baino ez dagoela ingurune hartan. Aurkitzen duen herri bakarra hutsik dago, abandonaturik. Bizi arrastorik ez da inon ageri, ez dago gizakirik, ezta naturaren presentzia handirik ere, ur gabezia eta idortasuna nabarmena da. Ingurune huts horretan dabilela, artzain batekin topo egiten du. Hark bere kantinploratik edaten eman eta bere bordara eramaten du. Borda alboko putzu sakon-sakon batetik lortzen du artzainak ur zoragarria. Inguruko herriak urrin daudela kontuan izanda, gaua artzainaren bordan pasatzen du protagonistak. Afaldu ondoren artzainak zaku bete ezkur aztertu eta onenak eta handienak aukeratzen ditu. Guztira ehun bat ezkur bikain bilduta, hurrengo egunean ezkurren zakutxo urontzi batean bustitzen du etxetik irten aurretik. Artzaina larretoki batera abiatzen da makila gisa burdinazko barra bat daramala eta, iritsi bezain laster, burdinaz lurra irauli, zulotxo bat egin, ezkur bat sartu eta lurrez estaltzen du zulotxo. Haritzak landatzen ditu han eta hemen, ehun ezkurak bukatu arte. Bordara bueltatzen dira bazkaltzera eta bazkalondan artzainak ezkurak sailkatzeari ekiten dio berriz. Narratzailearen galderari erantzunez, Bouffier artzainak esaten dio hiru urte daramatzala haritzak landatzen eta tarte horretan ehun mila zuhaitz landatu dituela. Artzainak kalkulatu du ehun mila zuhaitz horietatik hamar milak baino ez dutela biziraungo. Etorkizunean pagoak eta urkiak ere landatzeko intentzioa du Bouffierrek.

Lehen mundu gerrak eztanda egiten du eta narratzailea bost urtez soldadu ibiltzen da. Gerra amaitu bezain laster bueltatu egiten da Probentzara. Han aurkitzen du berriz Elzéard Bouffier, zuhaitzak landatzeari inoiz utzi ez dion gizona. Hark landatutako basoak dagoeneko badu hamaika kilometroko luzera eta hiru kilometroko zabalera. Haizeak ere lagundu du haziak sakabanatzen. Pagoak dagoeneko handituak dira, haritzak hostotsu daude eta urki asko ere badaude. Basoaren eta herriaren inguruko erreketan ura doa orain eta ura agertzeaz bat txori eta animalia asko itzuli dira eskualdera.

Liburuaren eta ikasleen errealitatearen arteko loturak egiteko, ikasleei zuhaitzak landatzen dituen erakunderik (Reforesta, ARBA, (R)Forest Project...) eza-

gutzen ote duten galdetu ahal diegu, basoak basoberritzeko modurik ezagutzen ote duten, mugimendu edo elkarte ekologistarik ezagutzen duten... Horrez gainera, kontuan hartu behar dugu Elzéard Bouffier fikziozko pertsonaia izan arren, errealitatean badaudela zuhaitzak landatzearen erronka hartu duten emakume eta gizonak, horien artean aipa daitezke Wangari Muta Maathai kenyarra eta Burkina Fason jaiotako Yacouba Sawadogo. Ikasleekin eskolan bi pertsona horien biografiak landu ditzakegu.

Wangari Muta Maathai (1940-2011) kenyarrak biologia ikasi ondoren doktoretza ikasketak burutu zituen. Doktore titulua lortu zuen lehen emakume afrikarra izan zen. Feminista zen, eta baita ekologista ere. Ekologia garapen iraunkorrerako bide zela aldarrikatzen zuen eta 1977an *Green Belt Movement* delakoa sortu zuen. Emakumeak animatzen zituen basoan haziak jaso eta zuhaitzak landatzera. Zuhaitzak landatzen zituen emakumea ezizenaz ezaguna da Maathai. 2004an Bakearen Nobel Saria jaso zuen, eta sari hori lortu zuen lehen emakume afrikarra izan zen. Maathai sortutako *Green Belt Movement* mugimenduak 47 milioi zuhaitz landatu ditu sortu zenetik eta kenyar paisaia basoberritu du. Maathairen biografian sakontzeko aukera dugu sarean, [gaztelania](#) zein [ingelesez](#).

Yacouba Sawadogo (Burkina Faso, 1946) nekazariak Right Livelihood Award delakoa, Nobel Sari Alternatibo bezala ezagutzen dena, irabazi zuen 2018an. 1980az geroztik 40 hektarea baso baino gehiago landatu ditu Burkina Faso eta Niger artean, lehen idorra zegoen lurraldea basoberrituz. Sawadogok paisaia erabat aldatu du eta bere lanari esker 60 zuhaitz eta zuhaixka espezie endemikok bizirauten dute. Basamortua baratu zuen gizona esaten diote. Sawadogoren [biografian](#) sakontzeko aukera dugu sarean.

16. GIH

BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK



Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.

M. Carmen Encinas Reguero

FERDINANDO EL TORO

Idazlea:
Munro Leaf

Ilustratzailea:
Werner Klemke

Itzultzailea:
Jacqueline Ruzafa

Argitaletxea:
Loguez Ediciones, 2005

ISBN:
9788485334056

80 orrialde
6 urtetik aurrera



Bakearen balioak irudikatzen eta zabaltzen laguntzen duen haur-erentzako lan bat badago, horixe da, zalantzarik gabe, *Ferdinando el toro*, Munro Leafek idatzitako albuma. Jatorrizko bertsoia Estatu Batuetan argitaratu zen, 1936an. Hasierako hura Robert Lawso- nek ilustratu zuen, zuri-beltzean, eta geroago (1966an) Werner Klemkek oinarritzko koloretako argizariak baliatu zituen (gorria, berdea, urdina, horia eta beltza) ilustrazioetarako.

*Ferdinando el toro*k zezentxo baten istorioa kontatzen du, gainerako zezen kementzuekin bo-

rrokatu orde arte baten azpian loreak usaintzea nahiago duen zezentxoarena, hain zuzen ere. Plazara toreatzera eramaten dute- nean ere, Ferdinandok uko egiten dio eta loreak usaintzea aukera- tzen du.

Beraz, istorio sinple bat da, zeina- ren bidez desberdintasunarekiko errespetua transmititzen den, bai- na, batez ere, erresistentzia pasi- boaren eta bakearen balioa gorai- patzen diren.

Esan denez, lana 1936an argita- ratu zen lehen aldiz Estatu Batue- tan, Espainian Gerra Zibila hasi baino lehentxeago, eta bakearen aldeko alegatu bihurtu zen, hain- bat herrialdeetan debekatuta ego- teraino. Hala, Ferdinando zezena bakezaletasunaren sinbolo bihurtu da eta gaur egun Haur eta Gaz- te Literaturako klasiko bat da. Pantailetara ere iritsi da: Disneyk 1938an Oscar sari bat irabazi zuen film labur baten bidez eta, ondoren, 2017an Carlos Saldan- ha-k zuzendu eta 20th Century Fox-ek banatutako film luze bat estreinatu zen.

Ferdinando el toro lan bikaina izan daiteke solasaldi dialogiko erraz bat egiteko, non ikasleek Ferdi- nando zezentxoaren historiaren eta gure egungo munduaren arteko harremanaz hausnartu ahal izango duten. Halaber, antzeko gaia ardatz duten bestelako li- buruekin erkatu daiteke lan hau, antzekotasunen eta ezberdinta- sunen taulak bete eta komentatuz, adibidez. Izan ere, bakearen garrantzia nabarmentzen duten beste lan batzuk ere plazaratu dira oraintsu. Horietako bat da Car- men Gilen *La paloma Mari Paz* (SM, 2010), bertsoz idatzitako lana, non oihaneko animaliak ez- tabaidan hasten diren Mari Paz

usoak ordena eta zuhurtzia berrezartzea lortu arte. Ikuspegi didaktikotik, Carmen Gilen lana aukera ona da gatazken aurrean nola jokatu eta balizko ekin- tza-bideei buruz hausnartzeko: indarkeriaren aurrean hitzaren eta arrazoiaren erabilera, guztiak ase eta adiskidetasuna eman dezakeen konponbide-bide bat aurkitzeko.

SEIS HOMBRES

Idazlea eta ilustratzailea:
David McKee

Itzultzailea:
Elena Del Amo Valero

Argitaletxea:
Libros del Zorro Rojo, 2013

ISBN:
9788494104190

48 orrialde
10 urtetik aurrera



David McKee idazle eta ilustratzaile britainiarra da, 2022an hil zena eta Elmer elefantearen liburu-sai- lari esker mundu osoan ezaguna. Elmer koloretako elefantea da, gainerako elefanteen aldean ezberdin sentitzea gustatzen ez zaiona. Edonola ere, beste- lako lan garrantzitsu batzuen egilea ere bada Da- vid McKee, hala nola *Ahora no, Bernardo* (semeari muzin egiten dioten gurasoei buruzkoa) edo *Negros y blancos* (gerrari eta gatazkei buruzkoa).

Estilo eta ilustrazio itxuraz errazak erabiliz, McKeek gai konplexu eta sakonei buruzko hausnarketara gonbidatzen duen istorio sinpleak planteatzen ditu. Horren adibide bikaina da lehenbiziko aldiz 1972an

argitaratutako *Seis hombres*, munduan zehar bakean bizi eta lan egiteko leku baten bila bidaiatzen duten sei gizonen istorioa kontatzen duen album ilustratua. Ezartzen direnean, hain ongi doakie, non aurrera egi- ten duten eta aberastasuna sortzen duten. Aberas- tasunak kezka sortzen die, soldaduak kontratatzen dituzte hura babesteko eta, azkenean, gerra bat era- giten dute. Denek hiltzen dute elkar, sei gizon baino ez dira bizirik geratzen. Bada, sei gizon horiek mun- duan zehar bidaiatzea erabakitzen dute, bakean bizi eta lan egiteko leku baten bila. Horrela, lerroko eta zuri-beltzeko marrazkiekin ilustratutako fabula soil eta dotore honen bitartez, David McKeek gerren jatorriari eta, azken finean, giza izaerari buruzko hausnarketa bat planteatzen du.

Lan hau bere sinpletasunagatik eta mezuaren sakan- tasunagatik nabarmentzen bada ere, album ilustratu asko dira gaia jorratzen dutenak eta irakurleari gerra- ren zentzugabekeria eta bakearen garrantzia helaraz- ten diotenak. Ildo horretan, honako lan hauek nabar- mendu daitezke: Éric Battut-en *Los niños no quieren la guerra* (Juventud, 2001), Gilles Rapaport-en *10 soldados* (Luis Vives, 2003), Anaïs Vaugelade-ren *De cómo Fabián acabó con la guerra* (Corimbo, 2000) edo Ruth Rocharen *Dos tontos sentados cada uno en su barril* (Global, 2004).

Obra horiek, bereziki David McKeeren *Seis hombres* lanak, gerraren sorrera aztertzen dutenez, erabilera didaktikorik onena, ziurrenik, pertsonaiek egiten du- tena zergatik egiten duten hausnartzean datza. Ildo horretan, irakurketarekin batera, "Zergatik?" galdera aurkeztuta erantzun posiblei buruzko eztabaida egi- tea proposatzen dugu: Zergatik bidaiatzen dute sei gizonak bakean bizitzeko leku baten bila? Zergatik eragiten die beldurra oparotasuna eta aberastasuna lortzeak? Zergatik erabakitzen dute soldaduak kontratatzea? Zergatik...? Amaitzeko, ikasleei galdetuko zaie ea zer esan nahi duen haientzat bakean bizi- tzeak. Bestalde, interesgarria izan daiteke lanaren is- torioaren zirkulartasunatik abiatuta esamoldeekin lan egitea. Kasu honetan, egokia da "El hombre es el único animal que tropieza dos veces en la misma piedra" edo "Gizakia da harri berean bi aldiz irauli egiten duen animalia bakarra" esamoldearekin hastea.

LA GUERRA DE NUNCA ACABAR

Idazlea eta ilustratzailea:
Alfredo Gómez Cerdá

Argitaletxea:
Júcar, 1990

ISBN:
9788433495594

92 orrialde
10 urtetik aurrera



Teatrarako bertsioa:

Argitaletxea:
Algar, 2016

ISBN:
9788498458961

112 orrialde
12 urtetik aurrera



Alfredo Gómez Cerdá, Espainiako Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionala jaso duenak, eleberrri labur honetan Pirulo Hogeita Bat (Pirulo Treinta y Uno) erregearen eta Ventoso Hogeita Zortzi (Ventoso Veintiocho) erregearen arteko gerra garatzen du. Ibai batek bereizitako erresuma mugakideetako bi errege dira. Bada, erregeek gerra baten bidez etsaitasun sutua mantentzen badute ere, soldaduek egun bero batean erabakitzen dute armak une batez utzi eta ibaian freskatzea. Ekintza horren bidez, konturatu gabe, lagun egiten dira soldaduak.

Satira eta umore handiz, Gómez Cerdá oposizio bat sortu zuen obra honetan: alde batetik, boterea duten agintariak ageri dira, gerra nola eta zergatik hasi zuten ez badakite ere, gerran dirautenak; beste alde batetik, gudu-zelaietan dauden soldaduak ageri zaizkigu, kontra dituzten borrokariekin dauzkaten antzekotasunak eta ezaugarri komunak sahiestu ezin dituztenak. Era berean, Gómez Cerdá oposizioa sortzen du gerrak besteengan eragiten dituen ondorioak kontuan hartu gabe gerra sustatzen dutenen eta gerra pairatzen dutenen artean, horiek baitira benetan bakea nahi eta baloratzen dutenak.

Alfredo Gómez Cerdá *La guerra de nunca acabar* lanaren antzerki-bertsioa ere argitaratu du Algar argitaletxean (2016) eta Ubriqueko (Cadiz) "tea Tre Ves?" Antzerki- eta Gorputz-Adierazpeneko Lantegiak antzeztu duenez gero, obraren irakurketa antzerki-tailer bat antolatuta osatzea gomendatzen da, ikasleek beren antzezpena egin dezaten.

Nola Alfredo Gómez Cerdáren *La guerra de nunca acabar* hala bes-

te titulu batzuk (Erich Kästner-ren *La conferencia de los animales*, 1949an lehen aldiz argitaratua, edo Anaya argitaletxeak 1995ean emandako Andreu Martínren *La guerra de los minúsculos*) tresna ona dira belaunaldi berriak bakearen balioetan hezteko.

17. GIH

HELBURUAK LORTZEKO ALIANZA



Ezarpn-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea.

**Maite Aperribay-Bermejo,
Amaia Elizalde Estenaga,
M. Carmen Encinas Reguero**

IBANEN MENDIA

Idazlea:
Begoña Ibarrola

Ilustratzailea:
Raquel P. Fariñas

Itzultzailea:
Miren Agur Meabe

Argitaletxea:
Desclée, 2017

ISBN:
978-84-330-2906-5

32 orrialde
5 urtetik aurrera



Ibanen herria itsusi samarra zen, etxeak ez zeuden zainduta, kaleak hauts eta zaborrez beteak... Herriaren inguruko landetan belar txarrak baino ez ziren hazten eta aspaldian ez zuen euririk egiten. Lehorte baina lehen herriko paisaia ezberdina zen: baratzeak zeuden, zelaiak lorez gainezka... Biztanleak aspaldiko garai opa-roagoetaz oroitzen ziren, baina ez zuten ezer egiten egoera aldatzeko.

Ibanen maisuak ikasleei azaldu zien klima aldaketa zela lehortearen arrazoia, eta mendiak hurbil baleude ez litzatekela halakorik

gertatuko, hodeiek mendiak gus-tuko dituzte eta. Orduan Ibanen ideia bat bururatu zitzaion: aitonaren orgatila zaharra hartu eta egunero, eskolak amaitu bezain laster, han eta hemen batzen zituen zakar eta trasteak eta ibai idorraren ertzera eramaten zituen. Herritarrak harrituta zeuden, baina inork ez zion laguntzen. Egun batean, Ibanen lagun batek lagundu egin zion eta poliki-poliki beste ikaskide batzuk ere hasi ziren laguntzen. Herria gero eta garbiago zegoen, baina inork ez zekien Ibanen helburua zein zen. Orduan, Ibanen zabor guzti horren gaitetik lurra botatzea bururatu zitzaion. Eskolakideei kontatu zion eta haiei ideia ona iruditu zitzaion. Arratsaldero, eskola amaitu eta gero, umeak ibai idorretik lurra hartu eta zabor pila haren gaitetik botatzen zuten. Herriko gurasoak lotsatzen hasiak ziren beraien seme-alabek egin zuten lana ikusita, eta laguntzen hasi ziren.

Denen artean mendia handitzen jarraitu zuten, traste zaharrak pilatu eta lurrez estalita. Guztiek lan egiten zuten mendia sortzeko; poza ere berreskuratu zuten, guztien arteko elkartasuna sentitzen zuten eta. Tabernaria kexu zen, auzolanak zirela-eta bezeroak galdu zituelako; baina, orduan, mendi magalean kiosko bat irekitzea bururatu zitzaion, lanean zebilen orori edari eta janaria saldu ahal izateko.

Denbora luzea zain eman ondoren iritsi zen euria. Herritarrak, pozez zorutzen, kalera irteten ziren eta dantza egin zuten euripean. Horrenbeste euri egin zuen, non laku bat sortu zen mendiaren oinean. Mendiak, lakuak eta ibaiak herri-tarrei bizipoza itzuli zieten. Ordu-tik aurrera herria hobetzen jarraitu zuten guztiek, eta alkateria herria

are gehiago hobetzeko ideiak planteatzen zizkioten. Ibanen ekimenari esker guztiek ulertu zuten elkarrekin saiatzen baziren edozer lortzeko gai izango zirela.

Garapen Iraunkorra helburu izanik, ezinbestekoa da elkarlana bultzatzea, bai mundu mailan, bai herri mailan. Istorio honen irakurketaren bidez ikasleak ohartuko dira “munduko herritarrak eta herritartasuna, garapen iraunkorrerako aldaketa-eragile” direla (UNESCO, 2017: 45 or.). Gazteek ikasiko dute aldaketa eragile bihurtzeko daitezkeela eta garapenerako pertsonen zein erakundearen arteko lankidetzaren ezinbestekoa dela. Izan ere, lan honetan kontatzen den bezala, herriko biztanleen elkarlanari esker herria garbitu eta zainduko dute, eta ondorioz herritarren bizi kalitatea hobetuko da.

Elkarlanaren edo auzolanaren kultura oso ohitura ezagun eta zabaldua da Euskal Herrian. Euskal Herriko zenbait lekutan garatzen dira oraindik auzolan ekimenak, elkarlana eta bizikidetzaren euskal kulturaren errotutako balioak baitira. Gure nagusi eta aurrekoen bizimoduari buruz gehiago ikasteko Ahotsak.eus webgunean eskuragarri dago Badihardugu Elkarrekin sortutako “Herritartasunerako Hezkuntza” izeneko gida. Gida honen lehen gai gisa auzolanaren kultura lantzen da. Bertan proposatutako atazak egin daitezke Euskal Herriko auzolanaren inguruko eza-gutzak lantzeko eta *Ibanen mendia* lanaren eta gure lurraldeko ohituren arteko loturak egiteko.

HONA GU HEMEN: LUR PLANETAN BIZITZEKO OHARRAK

Idazlea eta ilustratzailea:
Oliver Jeffers

Itzultzailea:
Garazi Arrula Ruiz

Argitaletxea:
Txalaparta, 2020

ISBN:
9788417065911

36 orrialde
6 urtetik aurrera



Oliver Jeffers ilustratzaile irlandarra da, haur-literaturako lan askoren egilea, mundu osoan ezaguna eta sari ugari jaso dituena. Bere lanak 30 hizkuntza baino gehiagotara itzuli dira eta horietako batzuk *bestseller* bihurtu dira.

Hona gu hemen: Lur Planetan bizitzeko oharrak liburua aita batek bere seme jaioberriri iritsi berri den mundu hori zer den azaltzen saiatzen dion kontakizun samurra da. Lanak, sotiltasunez, unibertsoaren neurrigabetasuna eta, aldi berean, izaki bizidun bakoitzaren balioa islatzea lortzen du. Handienetik (eguzki-sistematik), aita bere haurtxoa indibidualerantz eramaten du, bere bizitarantz. Eta aholkuak ematen

dizkio: denok gara desberdinak baina berdinak aldi berean, garrantzitsua da izaki bizidun bakoitza errespetatzea, bizitza azkar igarotzen da... baina, batez ere, izan zaitez jatorra, zaindu zure mundua eta, zerbait behar duzunean, ez zara inoiz bakarrik egongo Lurrean. Horrela, bere semearekin Lur unibertsoan duen lekua azaltzen hasten den aita honek pertsona ezberdinez betetako Lur batean bere lekua zein den erakusten dio semearekin. Nolanahi ere den, nabarmen dio pertsona horiekin lankidetzan aritu beharko duela, eta pertsona horiek izan behar dutela oinarri. Obra, beraz, anaitasun mezu hunkigarri batekin amaitzen da, hain zuzen ere Oliver Jeffers aitari beraren hitz batzuekin, egileak jasotzen dituenak: “Hiru hitzen arabera bizi behar dugu, seme, ez besterik: errespetua, begirunea eta tolerantzia”.

Azken batean, kontakizun hunkigarria da, non aita batek bere seme jaioberrira gonbidatzen duen bizitza estimatuz, unibertsoan duen txikitasuna ulertzera, guztiekin ona izatera eta planetako gainerako biztanleekin harreman osasungarriak izatera.

Obra honen ereduari jarraituz, ikasleei gutun bat idazteko eska dakieke, balizko anaia jaioberriri azal diezaieten mundua nolakoa den, nolakoa den biziko den herrialdea, hiria, ingurunea... eta bertan bizitzeko zer den garrantzitsua. Alde batetik, gutunaren generoa lantzeko aukera izango dute ikasleek (testuaren egitura eta ezaugarri nagusiak) eta, bestetik, beren inguru hurbila nolakoa den azaltzean, deskribapena lantzeko aukera dago. Halaber, deskribatu nahi duten lekuari buruzko informazioa eta hiztegia bilatu beharko dute ikasleek edo aldeztu aurretik ikasitakoan oinarritu. Funtsean, baina, jarduera honek balioei, bizikidetzari eta besteekiko harremanei buruz hausnartzera gonbidatuko ditu ikasleak, aurkeztu dugun lanak egiten duen bezala.

NON BIZIKO GARA?


Idazlea:
Alaitz Olaizola

Ilustratzailea:
Jesús Lucas

Argitaletxea:
Erein, 2005

ISBN:
84-9746-284-X

72 orrialde
7 urtetik aurrera



Antzerki lan honen muinean gizakion bizimoduaren jasangarritasuna dago, eta Lur planetaren mugak eta gizakiok bertan bizitzeko behar ditugun baldintzak azalduz dituzte Olaizolaren testuak. Antzoki txikia bildumako gainerako obretan bezala, paratestuen elementu guztiak irakurle gaztearentzako biziki iragarriak dira, pertsonaien karakterizazioarako ilustrazio eta guzti. Elkarrekin bizi eta jariatzen bidez erraz lortzen du testuak berez mamitsua den edukia modu arin baina aski sakonean plazaratzea. Izan ere, zer gertatuko litzateke Lur planetaren kutsadura maila gizakiontzako jasangaitza izatera helduko balitz? Horixe da istorioaren abiapuntua: gizakiek nabaritzen dute amasa hartzeko arazoak dituztela, zarata jasangaitza egiten zaiela, eguzkiak

min ematen diela eta, laburbilduz, kutsadura dela eta Lur planetako bizimodua ezinezkoa bihurtu dela. Planetarekin hitz egitea erabakitzen dute eta hark esaten dienean kutsaduragatik gaixorik dagoela, gizakiek erabakitzen dute beste planeta baten bila joatea. Alabaina, planetaz planeta egingo duten txangoan ohartuko dira ez dagoela haien beharrezko bizi-baldintzak beteko dituen beste planetarik, beraz, gainerako planeten laguntzaz, Lurra sendatzen laguntzeko erabakia hartzen dute. Hala, literatur testu honek irakurleak, aktoreak eta ikus-entzuleak gonbidatzen ditu gizakion bizimoduak Lur planetan daukan eraginaz eta jasangarritasunaz hausnartzera, eta jarrera iheskorrekin lotutako konponbideak bilatzeari utzi eta norbanakoaren nahiz komunitatearen inplikazioa bultzatzera.

Antzerki testu hau bakarka nahiz taldean irakur liteke, norbere baitarako nahiz ozen eta, jakina, testuaren dramatizazioa ere egin daiteke, zatika ala osorik. Irakurketa adierazkorra eta ahotsari lotutako elementuak landu daitezke antzerki testuaren irakurketa dramatizatua eginez, edo gorputz-adierazpenaren eremuan murgildu, pertsonaien eraikuntza fisikoaren bidez, besteak beste, antzerki obra errepresentatzea erabakiz gero. Nolanahi dela ere, literatur lanaren gaiarekin lotuta eta mamian murgiltzeko, irakurri aurretik taldean erantzuteko moduko zenbait galdera plazaratu daitezke: Zer behar dugu bizitzeko? Zenbat pertsona gara munduan? Munduko pertsona guztiek gure kontsumo maila izango balute eta Lur planeta maila berean kutsatzen jarraituz gero, egoera jasangarria izango litzateke? Zer gerta liteke honek horrela jarraituz gero? Eta zer egin liteke egoera hobetzeko? Aski da neurri indibidualekin ala kolektiboak behar dute izan?

Testua irakurtzerakoan distopia bat agertzen da, gizakientzat jasangaitza den kutsadura egoera bat, gizakiek eurek sortu dutena. Hala, testuaren amaierak berak egiten duen gonbita onartuz, Lur planeta “sendatzeko” moduen inguruan taldean pentsatzeko tertulia bat egin liteke. Hala ere, horri ekin baino lehen, komenigarria izango litzateke istorioak azaleratzen duen gizakien jarduteko era kontraesankorrean azpimarra egitea, kontsumo, ekoizpen eta ingurugiroarekiko ohituren eremuko: ustez beharrezko gauzak ekoiziz eta kontsumituz gehiegizko ondakinak eta kutsadura sortzen nahiz zinez beharrezkoak dituenak hondatzen ari dela giza espeziea. Era berean, erantzukizuna eta irtenbidea norbanakoan hasten dela

eta kolektiboak behar duela ere agerian geratzen da literatur testuan. Hortik abiatuta, talde handian tertulian aritu eta erabaki eraginkorrak har ditzaketen pertsona ezberdinak aipatu beharko dira: edozein pertsona, herriko alkatea, dendaria eta abar. Ondoren, ikasleak taldeka banatu eta bakoitzari horietako pertsonaia bana esleituko zaie, haiek egin ditzaketen aldaketak oinarri hartuta esketx gisakoak idatzi eta antzeztu beharko dituztelarik.

18. GIH

HIZKUNTZA ETA KULTUR ANIZTASUNA



Hizkuntza gutxituak eta kultur-aniztasuna. Euskararen eta euskal kulturaren garapena eta gaikuntza elaniztuna.

Miren Ibarluzea Santisteban

MOKO TXIKI

Idazlea:

Leire Bilbao Barruetabeña

Ilustratzailea:

Maite Mutuberria Larráyo

Argitaletxea:


Pamiela, 2017

ISBN:

978-84-9172-013-3

28 orrialde

5 urtetik aurrera



Album ilustratu honi hitzak jarri dizkion Leire Bilbaok bere buruari galdetzen dionez: “nola azaldu umeei norbere hizkuntzaz harro egoten?”. Erantzuna albuma osatzen duten 4000 karaktere eta ilustrazioetan dago. Bilbaok azaltzen duenez, albuma alegoria bat da, handiaren eta txikiaren indarra oreka batean jartzen duena eta aditzera eman nahi duena “denok bilatu behar dugula barneko ahotsa eta harro atera”. Liburuaren kontrazalean ahots hori hizkuntza gisa irudikatzen da: “hizkuntza txikiek mundua handitzen dute” mezua dakar.

Hipopotamoaren gainean sinbiosian bizi den txoriak irudikatzen du hizkuntza txikia, handia bezalakoa izan nahi duena. Hasiera batean ez

da inongo gatazkarik bien artean, txoriak hipopotamoak bezala orro egin nahi luke, hura bezain handia izan nahi luke, hura bezain errespetagarria, beldurgarria, indartsua... Baina, halako batean, txoriak hipopotamoaren gainetik ihes egin beharko du, munduan bere kabuz ibili eta bere ahotsa baliatuta txioka hasi. Moko txikiaren abentura inimizazio-bidaia bat da, Lorea Agirrezabalek Gara egunkarian egindako kritikan esan bezala, eta “nork bere bidea egitearen garrantzia, emantzipazioa, auto-ezagutza, gure baitan bilatzea, norbere buruarekiko harro egotea... gisa horretako hainbat mezu irakur daitezke istorio honen atzean”.

Moko txiki eta hipopotamoak bezala, sinbiosian daude baita testua eta ilustrazioa ere. Mutuberriak berak dio albumak ahalbidetzen duela testuak bide batzuk irekitzea, eta irudiak beste batzuk. Bada, interpretazio anitzak egiteko xedez jolas egin du irudigileak: irudiak umeentzat atsegin egin nahi izan ditu, baina irudi bakoitza lurraldeari lotutako metafora izatea bilatu du. Hala, hipopotamoaren azala mapa bat da, edota hipopotamo bera biribil-biribila da, ilargi bat bezain, edota hipopotamo multzo batek mapa mundua irudikatzen du ur-putzuan...

Oso gomendagarritzat jo zuten albuma 2017ko Irakur Gidan eta, gure ustez ere oso gomendagarria da, Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO katedrak 2030 Agendako helburuei gehitutako 17+1 helburua lantzeko; izan ere, GIH horrek xede du “Hizkuntza gutxiagotutako dituzten komunitateak ahaldu eta ezagutaraztea identitate desberdinak indartze-

ko". Bada, hain zuzen ere, txori txikiaren istorioak ahalduntze hori irudikatzen du. Gainera, istorioaren bukaeran ikusarazten du animaliek lagunak izaten jarraitzen dutela, baina beste era batera. Hala, hizkuntzen arteko bizikidetzak posible dela agertzen du albumak, elkarren osagarri direla animalia hizkuntza guztiak.

Lorea Agirrezabalek *Gara* egunkarian egindako kritikan adierazi bezala, irudien eta testuaren artean ere gertatzen da elkarrekikotasun hori: "elkarrekin eta aparte irakur daitezke lan honetan, elkarren osagarri baitira, ez menpeko". Bada, hipopotamoen gainean bizi diren krokodilo, dortoka, tximeleta, igel... nork bere ahotsa du, nork bere soinua, nork bere hizkuntza. Hala, irudi horri helduta proposatzen dugu haurrekin egiteko moduko lehenbiziko jarduerak: nork bere hizkuntzaren izena jartzea animalia bati eta krokodiloen mapa-mundian itsastea, dagokion etiketa eta guzti. Gure ikasleen etxeetako ahotsak, hizkuntzak... ikusarazteko ariketa izan liteke. Bide beretik, 6-9, 9-12 eta 12-16 urte-tarteetarako materiala proposatzen du *Lingolang* egitasmoak, gure herrietako hizkuntza-aniztasuna erakustea helburu duenak. Geletara hizkuntza-aniztasuna ekartzea du helburu, halaber, 7-12 urte bitarteko haurrentzat garatutako *Babelar jolas kolaboratiboak*; hamalau hizkuntzatan dago eskuragarri, *VirtuLap* taldearen eskutik. Bestalde, txoriaren irudia euskararen txanxangorriarekin lotuta, albumetik kantura jauzi egin daiteke.

HIZKUNTZA INDIGENAK. AMA LURRA ZAINTZEN

Idazleak:

Hainbat egile

Ilustratzaileak:

Hainbat ilustratzaile

Itzultzaileak:

Itziar Idiazabal eta Andoni Barreña

Argitaletxea:

Garabide Elkartea, 2020

Lege gordailua:

D 01146-2020

63 orrialde

8 urtetik aurrera



Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO katedrak 2030 Agendako helburuei gehitutako 17+1 helburuaz esandakoari jarraikiz, "Hezkuntzaren alorrean, benetako heziketa inklusiboa lortzeko beharrezkoa izango da kultura eta hizkuntza propioen erabilera bultzatuko dituzten ereduak garatzea". Lan horretan ari da Garabide Elkartea eta, besteak beste, *Hizkuntza Biziberitzeko Estrategiak Aditu* ikastaroa eskainita Mondragon Unibertsitateko HUEZI fakultatearekin batera. Ikastaroan hizkuntzak berreskuratzeko gakoan inguruko formazioa eskaintzen zaie munduko hizkuntza komunitate gutxituetako ordezkariari, euskal esperientziatik abiatuta beren herrietan beren prozesuak abiaraz ditzaten. 20 indigenek 3 hilabetezko egonaldia egin zuten 2018ko ikastaroan, eta orduantxe sortu zen argitalpen hau, "herri txikie-

takoek elkarren berri izan dezagun eta gure arteko sareak ehundu ditzagun, gure hizkuntzen, kulturen eta identitateen bizi iraupenerako", argitalpenaren sarrera-hitzetan adierazten denez. Liburuxka sarean dago deskargatzeko moduan, eta formatu fisikoan ere lortu daiteke, elkarteari eskatuta.

Elebitan dator liburua: testu bakoitza jatorrizko hizkuntzan eta euskaraz eskaintzen zaigu. Testuak saio horietan ekoizitako irudiz lagunduta datoz, eta jatorrizko hizkuntzan entzun daitezke ipuin, gogoeta eta olerkiak, *youtube-kanal batera igotako bideoetan*. "Kolibriaren mitoa" da lehenbiziko testua, Tuñi Huni Kuñ eta Mikel Mendizabalek emana, Brasileko mitoa bat egokituta. Bada, kondaira horrek hizkuntza-lankidetzaren saretzearen beharra azaltzen du. Ondoren datoz hainbat herri indigenen iruditegiaren berri ematen diguten elezahar, olerki eta gogoetak. Mapuzungun hizkuntzan Araukaria izeneko landarearen berri jasotzen da, herri Maputxearen izenean Sergio Marinaok ekarritako testuan. Félix Taruirek, ostera, Karapepo irudiaren jatorria aurkezten digu: Guaran herriaren imaginarioaren berri ematen digu andre bati ametsetan agertutako suge itsurako pertsonaia mitologikoaren kontakizunean. Huni Kui herriaren Hatxa Kui hizkuntzaren testua Tui Huni Kuirena da, eta izpirituaren arbolaren istorioa dakar, Amazoniako zuhaitzik handiarena. Runa izakiari eta izakien bikoiztasunari buruzkoak dira Kichwa herriaren izenean Sisa Tarinik eta Ximena Floresek ekarritako hitzak. Nasa herriarenak, ostera, Cristina Escue eta Huber Castrok dakartzate: "Gure herriko su sakaratuaren ondoan" izeneko testu laburrean terrigramaren oinarrietara garamatzate. Qeqchi herriaren izenean ari da Iris Esmeralda Ac, ondarearen transmisioaren garrantziari egindako olerki batean. Kiche herriaren hitzak Salome Huinacen testuan ageri dira: beren kulturari eta beren sorrerari buruz ari da. Kaochikel herriaren muinari buruz dihardute Carmelina Lix eta Miguel Angel Oxlajek beren poemak. Bi burudun arranoaren kondaira ere badakarte segidan. "Artoa gara" testuan islatzen da Mayata'a herriaren izaera, Marcos Pech eta Daniela Canoren lumatik. Guraso eta seme-alaben arteko elkarrizketa bat dator ondoren: modu poetikoan azaltzen da menperatuaren ezinegona. Nawat herriaren izenean, Mikaela Garrido eta Lizbeth Sanchezek beren herriko tradizio zenbaiten berri ematen dute, poema labur batzuk ematearekin batera. Azkenik, Euskal Herriko testua Julen Larrañagarena da: "Mairu zubigilea" kondaira dakar.

17-1 helburuaren xede nagusia da hizkuntza eta kultura guztien presentzia eta aintzatespena bermatzea, pertsonen eta gizartearen garapenerako. Bada, argitalpen honek ikusgarritasun gutxiago duten komunitateen hizkuntza eta kultura ikusarazteko bidea ematen du, bai eta eskoletako, herrietako eta eskualdeetako hizkuntza-aniztasunaren presentzia agerrarazteko proiektuak egiteko bidea ere. Hala, *liburuaren aurkezpen bideoa* ikusgai dagoenez gero, hori ikusi eta eredu moduan erabili daiteke eskolako hizkuntzen eta kulturetako elezaharren bilduma eleanitza egin ondoren ekoizitako liburuxka aurkezteko (eskolako edo herriko kideen hizkuntza eta kulturak identifikatu, kondairak bildu, idatzi, irudiz lagundu eta liburuxka egitea da proposatzen dugun proiektua).

Halaber, lan honen sustatzaileei buruzko azalpenak eman ondoren, inguruko hizkuntza politikarako zerbitzuak eta proiektuak identifikatu, bilatu eta gelakideen aurrean azaltzea izan liteke lan honetatik abiatuta gelan soziolinguistika gaiak lantzeko beste modu bat: irakasleak eman ditzake erakundearen izenak, edota ikasleen esku utzi bilaketa. Hainbat dira erakunde horiek: hasi herri mailako elkarte eta euskara sustatzeko udal zerbitzuetatik, segi eskualde zein herrialde mailakoekin eta Europa zein mundu mailakoekin buka (Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO katedra, Mercator... bezalakoak). Erakunde horien eta beren proiektu, kanpaina eta webguneen aurkezpenak egin litezke ikasgelan.

Irakurgai honekin eta proposatzen diren proiektuekin batera 17+1 GIH bidea egiten erakusketa muntatu nahi duen eskolak, Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO katedraren webgunean du informazioa xehatua.

GHERO: AZKEN EUSKALDUNA

Idazlea:


Patxo Telleria

Argitaletxea:

Euskaltzaindia eta Tartean teatroa, 2018

71 orrialde

12 urtetik aurrera



Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO katedraren webgunean aurki daitezke 2030 Agendako helburuei gehitutako 18.ari buruzko xehetasunak, eta dokumentu horretan adierazten denez, "Interneteko edukiaren %90 12 hizkuntzetan bakarrik dago". Hori horrela, funtsezkoa da hizkuntza gutxiagotuen presentzia bermatzea hedabide-mota guztietan. Bada, euskarazko antzerki-testuak online eta doan eskainita bide hori elikatzen du Mikel Martinez idazle eta antzezlearen Teatro testuak proiektuak. Webgune horretan dago deskargatzeko moduan *Ghero: azken euskalduna antzezanaren gidioa*.

Euskaltzaindiaren enkarguz idatzi zuen Patxo Telleriak testua, erakunde horren 100. urteurrenaren kariatara, eta 2018 eta 2020 urte bitartean antzeztu zen Euskal Herriko hainbat txokotan, Tartean teatroak eta Euskaltzaindiak ekoizita. *Antzezlana online ikusi daiteke*, 2018ko azaroaren 21ean Bilboko Arriaga antzokian egindako emanaldiaren graba-

zioan. Antzezanaren emanaldiei buruzko *gogoetetan* eta *kritiketan*, gazteek antzezanari egindako harrera ona aipatu izan da eta, hala, gaiagatik ez ezik, horrexegatik ere iruditu zaigu interesgarria gida honetara ekartzeko.

Hizkuntza aniztasuna ez da traba hizkuntza, pentsamendu eta kultura bakar eta globala dituen sisteman. Ingurune horretan eta 3000. urtean kokatzen da distopia futurista hau, euskara protagonista duena eta haren iraupenari gorazarre egiten diona. *Telleriaren hitzetan*, "Istorioa mila urte barru kokatzeak aukera asko ematen digu antzezanarekin jolasteko; gaia, ordea, gaur egungoa da. Euskaldunok badakigu zer nolako esfortzua eskatzen duen euskaraz egiteak. Errazenera jo genezake, indarrean dagoen hizkuntzan egin eta buruhaustek saihestu. Askoz ere errazagoa da amore ematea, hizkuntza hori ahaztea. Hala ere, ez dugu inoiz etsi".

Ospitale batean ageri dira pertsonaiak: Ghero, azken euskalduna hiltzear dago, eta gaixoarekin hizketan ariko da mediku gaztea, itzultzaile automatiko bat erabilita. Euskararen biziraupenaren mirariarekiko harridurak gidatzen du bien arteko elkarriketa eta bidaia etengabearen ariko dira iraganetik etorkizunera. Gherorentzat zama izan da familiaren hizkuntza gordetzea eta mantentzea, are ez du hizkuntza baliatu; baina, bizitzaren azken txanpan kezka piztu zaio: bera izango al da hizkuntza galtzearen errudun? Hala, Xerezadek bezala, ipuin edo "parabolei" helduko die bere hizkuntza salbatzeko: 9 ipuin kontatuko dizkio Gherok terapeuta gazteari, euskarak historian zehar bizi izan dituen egoera ezberdinak gogoratzeko balioko dutenak. Istorio barregarriak dira horietako batzuk, hunkigarriak eta barrerako tarterik ematen ez dutenak beste batzuk. Hala, *bai hizkuntza jarrez, bai euskararen historiaz eta egoera soziolinguistikoaz aitzeko aukera* paregabea eskaintzen du antzerki lan honek. Euskara ez ezik hizkuntza-aniztasuna goratu nahi da lan honetan, eta dozena bat hizkuntza desberdin darabiltzate ikuskizunean: ingelesa, frantsesa, gaztelania, txinera, katalana, galiziera, latina, miq-mack-era... Halaber, oraindik existitzen ez den hizkuntza ere badarabilte pertsonaiek: Hizkuntza Globala.

Azken horri lotuta, obra honetako hizkuntzak identifikatzeko eta horiei buruzko informazioa biltzeko eskakieke ikasleei. Halaber, antzezaneko Hizkuntza Globalaren ezaugarriei erreparatzeko eta hizkuntza

hori ulertzea ahalbidetu dieten gako hitzei buruzko gogoeta egitea interesgarria da oso. Hizkuntza globala bakar erabiltzearen eraginei buruz hausnartzea eta halako mundu bat imaginatuz istorioak idaztea izan liteke gogoetarako beste bide bat.

Lanaren testuartekotasunari lotuta, Axularren *Gero* eta *Xerezade Mila gau eta bat gehiago* testuen inguruko informazioa bilatzea eta testu horiek antzezan honekin duten loturak azalaraztea da beste ariketa interesgarri bat: zerk lotzen ditu bi lan horiek eta *Ghero: azken euskalduna?* galderari erantzuteko eskatuta.

Gherok parabolak erabili ditu bere egitekoa lortzeko, bada, manifestua ere izan liteke beste testu-genero egoki bat eta, ildo horretan "Eskolan euskararekiko eta hizkuntza gutxituekiko jarrera positiboak sustatzen: sekuentzia didaktiko baten oinarriak" lanean proposatutako bidea jarraitu daiteke antzezlana ikusi ondotik.

Azkenik, oso aproposa deritzogu hemen aurkeztu dugun lana abiapuntu duten hainbat saioeren katean, antzezlana ikusi eta landu ondoren, *EkoLinguA eztabaidarako mahai-jokoa* baliatzea. Eztabaida saioen ondoren, solasaldietan agertutako egoera bat hautatu eta horrekin lotutako teatro-testua idaztea eta antzeztea proposatzen dugu.

Hizkuntzen aniztasunaren eta euskararen egoera soziolinguistikoari buruzko hausnarketan sakontzeko, hamar sekuentzia didaktiko aurki litezke, halaber, *Tribuaren berbak proiektuan*, EITBn emandako telebista-saiotik abiatuta sortutako materiala eskaintzen duen webgunean.



